

Mintzapraktika:
euskara
jakitetik
euskaraz berba
egitera | 3

Oñatiko
herribusak ordu
erdian behin
emango du
zerbitzua | 8

'Xiberoa Arrasaten' egunera 30 bat
lagun etorriko dira Zuberoatik | 4



Eztiaren Eguna egingo dute hileroko
azokarekin batera Arrasaten | 9



MARITXU KAJOI 2016
Posterra erdian, argazki onenekin

Juan Kruz
Igerabide, Juan
Biain eta
Koldobika
Jauregi,
Donostian,
aurkezpenean.



XABIER LETE ETA 'IZARREN HAUTSA'

Askotariko arte diziplinak uztartuko dituzte
Arantzazuko Gandiaga Topagunean,
izen handiko sortzaileekin | 25

ANDONI CANELLADA

SINADURAK

	OIHAN VITORIA 6
	6 LARRAITZ ZEBERIO
	AITOR UGALDE 12
	13 ANDRES OSA 'SAKONA'
	MANEX ARRIOLABENGOA ETA SABIN ARANBURU 21
	32 ANDER ETXEBERRIA

90 eguneko lan-etetea Arrasateko Fagor CNAn

Gaur, egubakoitza, jakinaraziko dituzte baldintzak

Fagor CNA Groupek Jaurilaritzako Lan Delegazioan aurkeztu gura duen enplegu-erregulazioaren arabera, 90 eguneko etetea egin gura dute urtebeteko epean. Arrasateko Garagartzan duen plantan eragingo du - Geyserreko Garagartzako alorrak eutsi egingo dio aurreikusitako lan jarduerari-. 219 langile daude EREaren zerrendan. Enplegu-erregulazio espedientearen arrazoia da duten stocka jaitsi egin gura dutela. | 2

Herritarrok ekonomiaz jarduteko saioa: eguaztenean, Bergaran

'Ekonomia gurean' saio sorta abiaraziko dute
Goienak, Tokikomek eta Diputazioak | 5



- ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:
- Erreportajea: Hiru urte Fagor Etxetresnen itxieratik
 - Gure altxorak: XVIII. mendeko botika-errezetak

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

943 71 48 45

Hemen
GARBIKETAK

www.hemen-garbiketak.com

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegia, anbulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbiketak.com

Urtebete 90 eguneko etetea egin gura du Fagor CNAk Arrasaten

Gaur, egubakoitza, hasiko dira EREaren baldintzak negoziatzeko bi aldeak

UBANE MADERA | ARRASATE

Gaur, barikua, 09:30ean ziren batzartekoak Fagor CNA Group enpresa batzordeko ordezkariak taldeko zuzendaritzarekin, azken horiek aurkeztu behar duten 90 eguneko enplegu-erregulazio espedientearen gaineko baldintzak eta bestelako xehetasunak jakiteko.

Enplegu-erregulazio horrek Fagor CNAk Arrasateko Garagartza auzoan duen plantan eragingo du – Geyserreko Garagartzako alorrak eutsi egingo dio

aurreikusitako lan jarduerari. Hori horrela, Geyserrekoak izan ezik, Garagartzako gainontzeko 219 langileak daude EREaren zerrendan sartuta.

Edozein modutan, Fagor CNAko enpresa batzordeak ez daki ERE horren gaineko baldintzak zeintzuk izango diren, ELA sindikatuak esandakoaren arabera.

Azaroaren 1etik urriaren 31ra

Oraingoan, idatziz duten informazio bakararra da Fagor CNA Group Eusko Jaurlaritzako Lan

Delegazioan aurkeztuko duena: 90 eguneko etetea egin gura dela urtebeteko epean.

ELAren esanetan, enpresa batzordeari jakinarazi diote etete horretarako epea hasiko litzatekeela azaroaren 1ean eta bukatuko litzatekeela datorren urteko urriaren 31n. Eta epe horretan gauzatuko litzateke esandako 90 eguneko EREa. "Gauza asko entzun eta irakurri dira egunotan, baina astakeria irudituko litzateke enpresa ixtea azaroaren 1ean eta erabat itxita izatea 90 egunetan.

Normalean, ERE batean taldeak osatzen dira eta gaur 25 lagun egoten dira etxean, bihar beste 25... eta txandaka egiten da etetea. Edo lantegia astebetez ixten da... Lehendabiziko bileraren ondoren hasiko da kontsulta epea. Hortik aurrera bilera gehiago izango dira", esplikatu du ELA sindikatu metaleko arduradun Patxi Zubizarreta ordezkariak.

Stocka jaitsi gura

Enplegu-erregulazio espedienteak aurkezteko arrazoia da enpresak duen stocka jaitsi nahi duela. Kalkulatzen dute hiru hilabeteko stocka dutela eta azaldu dute poliki-poliki husten joateko asmoa.

Gaurko batzarraren ondoren, 15 eguneko epea zabalduko da EREaren baldintzak langileen ordezkariarekin adosteko.

Bi aldeen arteko negoziazioa ez da erraza izango. Izan ere, ELAko ordezkariak esandakoaren arabera, ez dute asmorik mahai-gainean jarriko dieten espediente "itsu-itsuan sinatzeko", kezka handia dagoelako enpresaren etorkizunarekiko.

Hain justu ere, langileen iturriek Goienari jakinarazitakoaren arabera, beldurra dute oraingo ERE hau ez ote den izango etorkizunean Garagartzako plantaren behin betiko itxiera ekar lezakeen

beste enplegu-erregulazio espediente baten hasiera.

Uztailen 19 kaleratze

Gauzak horrela, gaurko batzarraren, bereziki jakin gura dutena da ea benetan oraingo ERE hau neurri puntual bat den eta ea badagoen aurrera irteteko aukera. Izan ere, argi ikusten dute enpresaren egoera ez dela ona. "Egoera onean ez dago. Hori argi eta garbi ikusten da, egoera ona ez dela. Ez dakiguna da ze punturainoko larria den", dio Zubizarretak.

Egoera horren erakusle da, adibidez, uztailen 19 langile kaleratu zituztela Garagartzan.

Edozelan ere, enpresaren benetako egoera zein den jakin aurretik, ELAko ordezkariak adierazi du 90 eguneko geldialdi horrekin gauzak asko zuzendu daitezkeela: "Biltegiko produktuak ateratzen hasiz gero ez da gastatzen, diru-iturria sartzen da, hornitzaile gutxiago behar dira... Nahikoa izango den hori? Ea, ba, nahikoa den".

Oraingo asteko martitzenean eman zuen Fagor CNA taldeko buru Jorge Parladek Garagartzako produkzioa aldi baterako eteteko asmoaren berri. Goierna zuzendaritzarekin harremanetan jartzen ahailegindu den arren, oraingoan ez du erantzunik lortu.

Urriaren 21etik 23ra | Europa Jauregia | Vitoria-Gasteiz

EXPO NOVIAS 2016

Araba

3 egun zure egun berezia antolatzeko

Sektoreko espezialistak · zozketak · opariak

Izena eman urriaren 21a baino lehen zozketan parte hartzeko
Aurretiko izen ematea exponoviasaraba.com

Ostiralean 17-20:30. Larunbatean 10:30-14:30 17-20:30. Igandean 10:30-14:30.

Antolatzailea: **gasteiz on**

Babesleak: Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, Vitoria-Gasteizko Udala

Laguntzailea: Arabako Foru Aldundia, Diputación Foral de Álava

Revista NOVIAS Araba



Katxalin elkarteko kideak, eurek egindako materialarekin. | AMAIA TXINTXURRETA

Katxalin elkartekoek dirua jasoko dute ikerketarako

Hiru mahai jarriko dituzte bihar, zapatua, Bergaran

AMAIA TXINTXURRETA | BERGARA

Bularreko eta ginekologiako minbiziak eragindako emakumeen elkartekoek, Katxalin elkartekoek, urtean behin egiten dute diru-bilketak, eta aurtengoa bihar, zapatua, izango da, urriaren 19ko Bularreko Minbiziaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira.

Lazotxoak eta argibideak

Lazo arrosak banatuko dituzte eta herritarrei informazioa eman-goto dieten herrian jarriko dituzten hiru mahaitan; jasotako diru guztia, oster, ikerketara bideratuko dute. Katxalin elkarteko bailarako arduradun Maite Vallek zera azaldu du: "Lazotxoak jartzen ibiliko gara. Askok badakite zeren gainekoa den eta ez dugu euren-gana joan beharrik izaten; eurak etortzen dira. Beste batzuei zer den azaltzeko balio izaten digu".

Domekan, oster, Donostiako Klasikoaren barruan egiten den

5,5 kilometroko lasterketan hartuko dute parte; autobusean joango dira Bergaratik. Vallek adierazi du oso polita dela egun horretan sentitzen duten berotasuna: "Oso polita da Donostiako Askatasunaren etorbidean sentitzea marea arrosa bat, ikaragarria da jendeak txaloka ematen duen animoa". Bergarako Candem Town dantza taldekoak ere joango dira Donostiara, zumba dantzeekin girotera.

Yoga eskolak eta joskintza

Egun horietan bakarrik ez, urte osoan jasotzen dute Katxalinekoen berotasuna elkartera gerturatutakoek. Yoga eskolak eskaintzen dituzte astero, eta joskintza saioak ere izaten dituzte. Saio horietan egindako panpinak eta kuxinak ospitaleetan dauden umeen eta bularreko minbizia dela-eta ebakuntza egindako emakumeen artean banatzen dituzte.

Mintzapraktika egitasmoa: euskara jakitetik euskaraz berba egitera

- Abian da 2016-2017 ikasturtea; eskualdean ere eman daiteke izena
- Denon artean posible da hizkuntza komunitatea indartu eta egonkortzea

KOMUNITATEA GOIENA | DEBAGOIENAKO MINTZAPRAKTIKA EGITASMOAK |

Bizi garen eskualdean, gero eta jende gehiagok daki euskaraz, hizkuntzaren ezagutza gero eta arinago zabalduz doa; baina erabilera ez da neurri berean hazten, eta asko dira euskaraz jakin baina hitz egiteko zailtasunak, lotsak eta trabak dituzten lagunak. Jende askoren harreman sareak erdaldunak dira, eta horrek zaildu egiten du euskara jakitetik euskaraz berba egiterako pausoa ematea. Eta horretan laguntzeko daude martxan, hain zuzen ere, mintzapraktika egitasmoak; Euskal Herriko hainbat herritan, eta tartean gure eskualdeko Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Bergara eta Elgeta herrietan.

Egitasmo honetan izena ematen dutenak euskaraz bizitzera animatzen ditugu, erabiltzea baita hizkuntza bat ondo ikasteko modurik

onena, eta proiektu honek hori ziurtatzen du: euskarara gerturatzeta eta norberarena egiteko lehen pausoak ematen hastea.

Hiruzpalau laguneko taldeak

Mintzapraktiketan euskaraz naturaltasunez moldatzen diren lagunak mintzamina hobetu nahi dutenekin elkartzen dira, gustuko dituzten ekintzak burutu ahala euskaraz berba egiteko. Hiruzpalau partaideko taldeak osatzen dira, eta talde hauek maiztasun jakin batekin elkartzen dira (gehienak astean behin ordu batez) euskaraz berba egiteko.

Ekintza osagarriak ere antolatzen dira, talde desberdinetako partaideek elkar ezagutzeko: mendi eta kultur irteerak, afariak eta Euskal Herri mailako *Mintza eguna* bezalako jaia. Modu honetan, ziurtatuta daude giro atsegi-



Mintzapraktika egitasmoko ordezkariak, astelehenean Arrasaten. | E.A.

na, hurbila eta parte-hartzailea. Gainera, azken urteetako inkestek frogatu eta azpimarratu dute tresna interesgarria eta eragingarria dela euskaraz funtzionatzen duten harreman sareak eta ohiturak sortzeko.

Arrazoi ugari

Mintzalagun bihurtzeko arrazoiak asko izan daitezke: ahaztutako hizkuntza freskatzeko, jende berria ezagutzeko, ilobarekin hitz egiteko, beste batzuei hori guztia egiten laguntzeko... baina denek

IZENA EMATEKO BIDEAK

Arrasate:

AED elkarte, 943 77 12 28.

Oñati:

Oñatiko Berbalaguna, 943 78 24 96.
euskera@onati.eus.

Bergara:

Jardun elkarte, 943 76 36 61.

Aretxabaleta:

Loramendi elkarte, 943 77 09 70

Eskoriatza:

Udala, 943 71 46 88

Elgeta:

Elgetan Berbetan, 665 282 215.

berbetan@elgeta.net.

badute zerbait komunean: aisialdiaz euskaraz gozatzen dute eta, arian-arian, lagun giro euskalduna sortzen dute. Horretaz gain, erakundeek, euskaltegiek eta euskara elkarteek elkarlanean aritzeko aukera paregabea dute.

Mintzapraktika egitasmora gonbidatzen dugu ikasle, irakasle, aitona-amona, guraso, langile eta, oro har, bere buruari erronka txiki bat jarri nahi dion herritar oro, denon artean posible baita hizkuntza komunitatea indartu eta egonkortzea.



AGURNE JULDAIN (ARRASATE)
BIDELAGUNA

"Lortu dudana da nire herria bultzatzea. Erraza da euskaldunondako gure herriagatik horrelako ekintza bat bultzatu eta konturatu gabe herria laguntzea. Euskara gurea da eta guk egin behar dugu euskararen alde, nork bestela?"



ISA RICHARD (ELGETA)
BIDELARIA

"Oso esperientzia polita izan da. Hizkuntza ikasteko baino gehiago, ohiturak aldatzeko balio izan dit, egunero euskara gehiago erabiltzeko. Euskaraz berbetan, soltura handiagoz sentitzen dut nire burua; hori lortzen lagundu dit"



TARSICIO OSES (OÑATI)
BIDELARIA

"Oñatiko Berbalagunari esker, euskaraz hitz egiteko eta euskara hobetzeko aukera dut, niretzat egokia den ordutegian eta lagun giroan. Ez dut denbora libre luzerik. Giro ona izan dugu, ondo moldatu gara. Ederra da herrian halako aukera izatea".



LOREA ESTEVEZ (BERGARA)
BIDELARIA

"Egunerokoan euskaraz egiteko aukera ematen dit, tabernan, dendan edozer erosterakoan... Askok euskarazko profila gaingitu arren, ez dira euskaraz aritzen eta hizkuntza ahazten dute. Urte asko daramatzat eta oso gustura nago".



MARTA IBAÑEZ (ARETXABALETA)
BIDELARIA

"Euskararekin aurrerapauso bat eman dut. Beharrezkoa da. Konturatu nintzen euskara uste baino ederragoa zela. Kaleko euskara ezagutu dut. Praktikari esker, lotsa galdu dut, harremanak euskaraz egin ditut eta dibertitu egin naiz".

BERRIAK



GOIENA TELEBISTA | BERRIAK | DEBAGOIENAKO AKTUALITATEA EGUNERO ZURE TELEBISTAN
ASTELEHENETIK OSTIRALERA, 14:30, 16:30, 18:30, 20:30 ETA 23:00 | LARRAITZ ZEBERIOK AURKEZTUA

'Xiberoa Arrasaten' eguna bihar, harremanak estutzeko

Eperra ikastolaren bueltako 30en bat lagun datoz Zuberoaren berri ematera

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Zuberoako Eperra ikastolaren eta Arrasateren arteko hartu-emanak hamahiru urte beteko ditu aurtén. Arrasaten bizi den Renée Harbustan zuberotarrari esker Gabonetako otarrak iritsi dira azken urteotan Debagoienearaino ikastolari laguntzeko. Orain elkarren arteko harremanak estutu gura dituzte, Arrasate ezagutzera eman Zuberoan eta Zuberoa ekarri Arrasatera; hala, *Xiberoa Arrasaten* eguna antolatu dute AED elkar-tearekin batera: "Aspaldi gonbidatu gintuen Renée etortzera, eta aurtén bagatoz elkar ezagutzera", jakinarazi du Beñat Etchebestek, Eperra ikastolako gurasoak.



Zuberoako Eperra ikastolako hainbat lagun. | EPERRA IKASTOLA

Baserritarren azokan

Guztira 30en bat lagun gerturatu dira, gehienak Eperra ikastola ingurukoak, eta beste batzuk Atharratzeko Basaburuko ikastolakoak. "Urrun eta era berean ez hain urrun dagoen Arrasate ezagutzera gatz", dio Etchebestek.

Bihar, urriko hirugarren zapatua, baserriko produktuen azokarekin egingo dute bat zuberotarrek (09:00-14:00). Hala, Seber Altube plazan eskainiko dituzte hainbat produktu, besteak beste, Aizkorria kooperatibako gazta, ahatekiak, txerrikiak eta eztiak. Horiek izan ohi dira hain zuzen, Gabonetako otarretako osagaiak. Artisauekin batera etorriko dira Astobelarra argitaletxeko hainbat

kide, Mauleko turismo bulegoko ordezkariak eta garapen bulegoko lehendakaria eta hainbat kide. "Horien guztien helburua da Debagoienean Zuberoaren berri zabaltzea", argitu du Etchebestek. Bide batez, aurtengo Gabonetako kanpaina aurkeztuko dute.

Kalez kale kantuan

Arrasate ere ezagutu gura dute: "Ekonomia arloa, kooperatibak, hezkuntza kontuak...". 10:30etik 12:00etara bitartean, hainbat saio izango dituzte horretarako: bate-tik, kooperatiben gaineko aurkezpene egingo diete, eta bestetik,

Arizmendi ikastolako kideek konfiantzaren pedagogia metodologiaren gaineko argibideak emango dizkiete.

Bazkal aurretik kantuan egingo dute azoka inguruan: "Oso gustuko dute kantuan egitea eta Portaloi elkartekoek lagunduko diete", jakinarazi du Itxaro Artolak, AED elkarteko dinamizatzaileak. Ondoren bazkaltzera joko dute Jai Zale tabernara guztiek; 60 lagun inguru elkartuko dira. Eta arratsalde partean, 18:30etik 20:00etara, kantuan jarraituko dute kalez kale itzulerako ordua iritsi artean.

Gripearen aurkako txertaketa kanpaina urriaren 17tik abian

Osasun etxeetara jo behar da txanda hartzeko

M.A. | DEBAGOIENA

Astelehenean, urriaren 17an, jarriko du abian Osakidetza griperearen aurkako txertaketa kanpaina eta bi hilabete iraungo du, abenduaren 17 artean. Debagoienean osasun etxeetara jo behar da txertoa hartzera, txanda aurrez hartuta [Argibide gehiago: *Herriak* saila].

380.000 txerto

Kanpaina bideratu diete, beste behin, 65 urtetik gorakoei, gaixotasun kronikoren bat dutenei, haurdun dauden emakumei eta osasun-arloko langilei. Izan ere,

gaixotasun larria izan daiteke gripea pertsona horientzat, eta "konplikazio larriak" sor diezaiekete, Osasun Sailaren eta Osakidetzaaren esanetan. Gaineratu dute txertoa dela gripear aurre egiteko eta arrisku-taldeetan daudenei eragin diezazkiekeen konplikazioak saihesteko "armarik eraginkorrena eta seguruenena".

Aurtengo kanpainarako 380.000 txerto erosi dituzte, eta, Jon Darpon sailburuak esan duenez, behar izanez gero, dosi gehiago erosiko dira. 1.200.000 euroko inbertsioa egin dute dosiak erosten.

Debagoieneko adinekoen egoitzatara ere badatoz bertsoan egitera

M.A. | DEBAGOIENA

Joan den astean Tolosan abian jarritako *Adin-adin* egitasmoa Debagoienara ere iritsiko da. Urtea bukatu bitartean hamahiru zaharren egoitzatik pasatuko dira hainbat bertsolari; Maider Arregi oñatiarra eta Jexux Mari Irazu larrauldarra, esaterako, Arrasateko Iturbide egoitzan izango dira datorren eguaztenean, urriaren 19an, (17:00) eta Bergarako Mizpirualden urriaren 26an (17:30). Aramaiora ere joango direla iragarri dute egitasmoaren sustatzaileek, baina hori abenduan izango da.

Eragin positiboa

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Lankuren artean abian jarritako egitasmoaren hirugarren edizioa da. Maite Peñak, Gizarte Politikako diputatuak, nabarmendu gura izan du bertsoak adinekoengan duen "eragin positiboa, memoria lantzeko bitartekoa delako, eta emozioetara iristen den tresna".

Lankuko kideen esanetan, orain arteko edizioek erakutsi dute ekimenaren arrakastaren gakoak direla adinekoen "parte-hartzea" bultzatzea, batetik, eta beraien arteko harremana "hobetzea", bestetik.

Belen Larrion | Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko zuzendari nagusia

"Era askotako umeak daude eta era askotako harrera familiak behar ditugu"

Aldundiak abian jarriko duen kanpainaren gaineko argibideak emango dituzte Arrasaten, urriaren 19an

M.A. | ARRASATE

Haurren harrera familien gaineko kanpaina jarriko du abian Aldundiak datozen egunotan *Benetako besarkadak* izenarekin. Datorren eguaztenean, urriaren 19an, aurkeztuko dute Donostian eta arratsaldean, 18:00etan, Arrasaten, Kulturaren, emango dituzte horren gaineko argibideak. Aldundiko Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko zuzendari nagusi Belen Larrion bergararrak familia horien beharra azpimarratu du.

Zenbat ume eta gaztetxo daude gaur egun harrera familien zain?

Gaur egun 313 ume eta nerabe bizi dira Foru Aldundiaren egoi-

tzetan. Horietatik 60 ume eta nerabe daude familia baten zain. **Zenbat familia beharko lirateke?** Beharra etengabea da. Orain, 60 familia behar ditugu, baina kopuru hau aldatzen doa. Kontuan hartu urtean zehar Aldundiak ume askoren ardura hartu behar duela, ume horien gurasoek ezin dituztelako ondo zaindu. Gainera, era askotako familiak behar dira: larrialdi harrera egiteko prest daudenak, baina baita behin-behineko harrera edo luzaroko harrera egiteko prest daudenak ere. Eta umeen adina ere desberdina izaten da: baditugu ume txikiak, baina baita nerabeak



Belen Larrion, bulegoan. | OIHANA SARASOLA

ere. Eta horientzat oso garrantzitsua da aukera izatea familia batean bizitzeko.

Anai-arrebak ere badaude harrera etxea behar dutenen artean?

Bai, kasu batzuetan anai-arrebak izaten dira, eta, ahal izanez gero, onena litzateke elkarrekin egotea familia batean. Baina hori ezin bada, behintzat, familia desberdinetan egon daitezke, eta beraien arteko harremana mantendu dezakegu bisiten bitartez.

Ze baldintza behar dira harrera familia izateko?

Era askotako haurrak eta nerabeak daude eta, horregatik, familiak ere era askotakoak behar dira; ez dago profil bat zehaztuta. Baina hainbat baldintza bete behar dituzte. Adibidez: familia osoak ados egon behar du erabakiarekin; garbi izan behar dute beraien nahia harrera egitea dela, ez adoptatzea; prest egon behar dute haurra edo nerabea beraiekin hartzeko, kontuan hartuta ume horren historia, ohiturak, familia eta izaera; familia horrek malgutasuna izan behar du aldaketetara

moldatzeko; eta prest egon behar dute profesionalen informazioa eta aholkularitza jasotzeko. Harre-ra familiek jakin behar dute arazoak izango dituztela; baina ez dira izaten arazo gaindiezinak. Horren proba da dagoeneko 350 harrera familia ditugula, baina gehiago behar ditugu. Alde horretatik, konfiantza osoa dugu Gipuzkoako gizartearekin. Era berean, harrera familiekin hitz egiten dugunean, esaten digute oso esperientzia aberasgarria dela. Umeari maitasuna eta segurtasuna ematen diotela, baina trukean %200 jasotzen dutela.

Harrera familia izateak ez du zeri-kusirik adopzioarekin, ezta?

Garbi esan behar da harrera ez dela adopzio bat, ezta bidea ere adopzioa lortzeko. Aldi baterako neurria da; azken helburua da adingabea bere etxera itzultzea, jatorrizko familiak bere arazoak konpondu arte. Hala ere, harrera familia luzatu egin daiteke haurrak adinez nagusiak izan arte.

Zer egin behar dute harreragile izan nahi dutenek?

Argibide gehiago izateko, hauek dira kontaktuak: 943 11 25 22 eta familiaharrera@gipuzkoa.eus.

Aurrekontu Irekietarako ekarpen asko jaso dira

L.K. | DEBAGOIENA

Gipuzkoako Foru Aldundiak Arrasaten, Oñatin eta Bergaran aurkeztu du datorren urterako aurrekontuen pres-taketarako abiarazi duen par-taidetza prozesua: Aurrekontu Irekiak 2017.

Foru Aldundiaren esane-tan, Debagoienean egondako hiru egunetan herritarren "ekarpen ugari" jaso dira eta parte-hartzea "zabala" izan da, "ez bakarrik karpapa joan-dakoen artean, baita ekimena aurkeztu eta sustatzeko para-leloan antolatu diren lan-saio eta topaketetan ere". Ekarpe-nok jaso, baloratu eta kontuan hartu eta gero, aurrekontuen proposamenaren memoriare-kin batera aurkeztuko dira, eta hartutako erabakiei buruz-ko azalpena ere bai, horiekin batera.

Herritarrok ekonomiaz jarduteko saioa izango da eguaztenean Goienaren eskutik

'Ekonomia Gurean' saioak abian jarri dituzte Goienak, Tokikomek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak; lehenengoa datorren eguaztenean izango da

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Ekonomiak egunerokoan du era-gina; ez bakarrik erakunde publi-koen, enpresen eta kooperatiben egunerokoan, baita herritar soi-lon eguneroko bizitzan ere. Herri-tarron egunerokotasunean era-giten duten erabaki asko datoz ekonomia mundutik. Hori horre-la izanda ere, herritarron artean ez dago ekonomiaz jarduteko ohiturarik. Horren kezkatik abia-tuta, Goienak eta Tokikomek herritarroi zabaldutako hitzaldi saio berezia antolatu dute: *Ekonomia Gurean*. Lehenengo saioa Debagoienean izango da, Berga-ran, hain zuzen ere, datorren eguaztenean.

Ekonomia Gurean hitzaldi formatuan antolatu da eta herri-tarron parte-hartzea ezinbestekoa da. Adituak izango dira gidari –Urko Aristi kazetariak aurkez-

tuko ditu saioak, eta enpresabu-ru eta adituak izango dira gon-bidatu gisa– baina "ohorezko jasotzaileak" herritarrek izango dira, Goienako zuzendari nagusi Iban Arantzabalen hitzetan: "Ger-tutik ezagutu ahal izango dute, ekonomia eta enpresa munduan garrantzi handia izan duen jen-dearen eskutik, zer gertatu den eta gaurtik zer irakurketa egin dezakegun gaiaz. Euskal Herri

mailako datuak izango dira hiz-pide, baina gura dena da gu bizi garen eskualdeko errealitatea ere ezagutzea ematea".

Eskualdeko berezitasunak

Debagoieneko ekonomia egitu-rari erreparatuko zaio, bereziki; gertutasuna da, hain zuzen ere, erabiltzen den aldagaia.

Debagoienaren kasuan, bi dira historikoki nagusitu diren

Lehenengo hitzordua, Bergaran

Ekonomia Gurean saioko lehenengo hitzordua Bergaran izango da, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, urriaren 19an, eguaztena. 19:30etik 20:30era iraungo du. Aurkezlea Urko Aristi kazetaria izango da saio guztietan, baina saio bakoitzeko gaiak tokian tokikoak izango dira. Gonbidatuak ere aldatzen joango dira. Kasu honetan, Lazpiur enpresako buru Miguel Lazpiur eta Orkestra, Lehiakortasunaren Euskal Erakundeko arduradun Miren Estensoro izango dira gonbidatuetako bi.

ereduak: batetik, kooperatibak, eta bestetik, enpresa familiarra. Bi eredu horiek desberdin egin dute Debagoiena, eta desberdina da datuetan ere. Hala, Iban Aran-tzabalen esanetan, "ekonomia ereduak, esaterako, balio izan du emakume eta gizonen arteko ezberdintasun txikiena duen industria jarduera Debagoienean egotea. Hori pasatzen da hemen, eta ez beste inon".

Adituek Urko Aristiren gal-derei erantzungo diete, baina herritarren galde-erantzunetara-ko tarteak ere egongo da.

Streaming bidez zuzenean

Hitzaldi formatua edukiko du *Ekonomia Gurean*-ek, baina ikus-entzunezkoen bidez ere zabal-duko da. Hala, eguaztenean, hitzal-dia zuzenean streaming bidez jarraitzeko aukera izango da *Goiena.eus* atarian. Eta saioa grabatu egingo da gero emititze-ko: hain zuzen ere, Goiena tele-bistan urriaren 26an emango da, eguaztena, 22:00etan.

Estreinaldia Debagoienean izango da, eta gero, Tokikomen eta Gipuzkoako Foru Aldundia-ren ekimenez, beste eskualde batzuetara eramango da.

Fagor Etxetresnen krisiaren gaineko erreportaje zabala, gaur 'Puntua'-n

L.K. | ARRASATE

Fagor Etxetresnak kooperatiba hartzekodunen aurre-konkurtsuan sartu zela hiru urte betetzen dira urriaren 16an, eta hartzekodunen konkurtsua eskatu zuela, azaroaren 13an. Urteurren horren harira, erreportaje berezia prestatu du Goienak. Josu Bilbao eta Leire Kortabarria kazetariak eta Jagoba Domingo, Andoni Goiti eta Moni-ka Montero teknikariak osatutako lantaldeak egindako erreportajea gaur, egubakoitza, argitaratzen da Goiena Klubeko bazkideek jasoko duten *Puntua* astekarian, eta urria-ren 19an, eguaztena, emitituko du Goiena telebistak.

Birkokatzeen erronka

Erreportaje zabal horretan, hain-bat inplikaturen ikuspuntuak batzen dira: bazkide ohiak, Fagor S. Coop.-eko eta Mondragon Kor-porazioko arduradunak, etxetres-na saltzaileak, orduko eta orain-go udal agintariak, kooperatibis-moan eta soziologian adituak... Orduko krisia nola bizi izan zuten entzuteaz gain, Fagor Etxetresnen itxierak eta desagertzeak eragin zituen ondorioei nola aurre egin dieten jakiteko aukera izango dute irakurleek eta ikus-entzu-leek; bereziki, bazkideen birkoka-tzean kooperatibek arrakastaz gainditu duten erronka aztertu-



Fagor Etxetresnak. | GOIENA

ko da. Horrekin batera, koope-ratibismoarendako krisi histori-ko horrek izan dituen ondorioen gaineko gogoetak ere konparti-tuko dituzte.

Juanjo Alvarezen bi hitzaldi antolatu ditu Goienagusik Bergaran

El TPPI, Acuerdo entre EEUU y UE eta *Derecho de Familia, cuestiones controvertidas* ize-neko hitzaldiak egingo ditu Bergarako UNEDeko zuzen-dari ohi Juanjo Alvarezek, Goienagusik antolatuta. Ber-garako udaletxeko osoko bil-kuren aretoan izango dira biak, lehenengoa urriaren 17an eta bigarrena urriaren 19an, 10:00etan. Biak gaztela-niaz izango dira.

Goienagusik 2016/17 ikas-turteko bere egitarauaren barruan antolatu ditu esan-dako hitzaldiak. Nazioarteko Zuzenbidean katedraduna da Alvarez.

Abian dira 24. Jardunaldi Gastronomikoak

Neguko barazkiek, onddoek, sagarrek eta eztiak garrantzi berezia izango dute aurtengo Debagoieneko Jardunaldi Gas-tronomikoetan. 24. aldiz egi-ten dira jardunaldi horiek eta joan den martitzenean aur-keztu zituzten Mankomuni-tateak eta Deba Garaia agen-tziak. Bailarako hainbat jate-txek, esandako produktuak erabilia, zenbait menu pres-tatuko dituzte, turismoa era-kartzeko helburuarekin.

Bestalde, aurtengo jardu-naldiek, tailer eta ekintza batzuez gain, bi egun berezi izango dituzte: eztiarena, Arra-saten; eta gatzarena, Gatzagan.

Ekonomia gurean

Debagoieneko errealitatearen protagonista diren herritarrekin gure ekonomiaz hitz egin nahiko genuke.

Aurkezlea: Urko Aristi

Solaskideak: Miguel Lazpiur (enpresaburua) eta Miren Estensoro (Orkestra, Lehiakortasunerako Euskal institutuko ikertzailea)

Eguna: Urriaren 19, eguaztena | **Ordua:** 19:30 | **Lekua:** Bergarako Pleno aretoan

Zu ere gonbidatuta zaude!!!!

**sarrera doan (aurrez eman izena ekonomiagurean@ekonomiagurean.eus helbidean)*

**zuzenean streaming bidez jarraitzeko aukera goiena.eus atarian.*

**Goiena telebistak urriak 26an eskainiko du (22:00)*

goiena“
KOMUNIKAZIO TALDEA

TOKIKOM

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN
GIPUZKOA

ZABALIK

OIHAN VITORIA
goiena.eus/komunitatea/

Zirt edo zart

Ume-moko batzuk gineneko garaiak oroitu genituen aurrekoan, topa eta topa artean. Nerabezaroko txutxu-mutxuez aritu ginen, maitasun kontu zirraragarri eta ez hain zirraragarriez, inozentziaren labirintora eginiko joan-etorriez. Ikasi eta desikasitakoak ere eduki genituen ahotan, gela barruko eta kanpoko *balentriak*. Nola atsedenaldietan entzierro txikiak antolatzen genituen irakasleei harrera lasterka egiteko, edo nola ezkutatzen ginen mahai azpietan klase hasierak atzeratzeko..

Atzera begiratzea ei da aurrera egiteko errepide motzena, egiaztatzeko urteak ez direla oharkabea igaro, ez garela beti izan gaur garena. Denboraren joana ere maltzurra bezain abegikorra izan daitekeela erakusten digu, dilemaz eta ustekabez beteriko erronka bat baita bizitza.

Parte hartzen ez dugun erabaki batek munduratzeko gaitu, baina, nolako edo halako izan, bide bat edo beste aukeratzera behartzen gaituzte berandu baino lehen. Izan pertsonal, izan kolektibo. Batzuetan kontzienteago besteetan baino. Egokituko zaigu zertan trebatu nahi dugun erabakitzea, zientzietan ala letretan, kirolean ala musikan. Eta deliberatu beharko dugu etorkizuneko zimenduak non, nola eta norekin eraiki.

Badira, hankak lokazteko beldurragatik, azazkalak jateari gustua hartu diotenak, patxada dutenak lanabes. Damuen beldur, bihozkada baten zain ematen dute bizitza zenbaitzuek, inguruko onespena noiz jasoko. Eta beste batzuei nekeza zaie zirt edo zart egitea presioa belarri atzean sentitu arte. Hautu kontzienteak, betiere. Edo ez, akaso erosoegi bizi gara maskarak erantzi eta ausart jokatzeko.

Atzera bueltarik gabeak bihur daitezke erabakiak, ados. Hala ere, susmoa dut hobe joango litzaigukeela alferrikako batailetan indarrak xahutu ordez senari jaramon eginda emango bagenitu pausoak, ez ondorioek gidatuta. Buruko mamuak dantzan baditugu, kostata egingo baitugu bidea. Aurrena, saiatu; gero, gerokoak.

USTEAK USTE


LARRAITZ ZEBERIO | lzeberio@goiena.eus

Oroimena arma nagusi

Entzun beharreko testigantza dela iruditzen zait. Doala aurretik entzun beharreko testigantza asko daudela, baina Juan Miguel Vidalen hitzek harrapatu egin naute. Ehun urte beteko ditu laster, argi du burua, eta onena: gogo biziz kontatzen ditu bizi izandakoak. Komunikatzaile ona da. Irratsaio batean entzun diot elkarrizketa bat. Zioen gerra bat galdu zuela orain 80 urte –gudari izan zen Artxandan–, baina bigarren bat egiteko prest dagoela, eta oraingoan oroimena izango duela arma nagusi. Pozik da. 80 urtean isilarazi dute, baina orain zenbait erakundek kontatzeko dituenak entzun gura dituzte. Ez zuela inoiz pentsatuko, dio.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.net/komunitatea/



GUTUNAK

Arrasateko Trikitixa Eskolaren partetik, eskerrik asko!

Esther Learreta
(Arrasateko Trikitixa Eskolaren lehendakaria)
Arrasate

Ekainaren 11n hasi zien Arrasateko Trikitixa Eskolaren 25. urteurreneko ekintzak, eta atsalde edarra pasetako aukerie eduki geuen Monterron parkien, Arrasateko hainbat kultur talderekin.

Hori egunori hasiera baiño ez zan izen. Iraileko egubakoitzak be trikiti eta pandero doiñuak lagunduta ospatu dittuagu. Akaberia be ezin hobia emun jako; izen be, Maritxu Kajoi Komisiñuek enbutu preziatue jantzi deusku honeittan 25 urte honeittan eginddako lanagaittik eskerrak emuteko: zenbat doiñu eta kantu eder entzuteko aukerie izen dogun 25 urteotan! Zenbat umek, gaztek eta ez hain

gaztek jotako doiñuek poztu eta girotu dittuen Mondragoeko kaliak! Zenbat irakaske! Zenbat guraso! Zenbat bolondres! Zenbat jende eskertzeko!

Mille esker be gutxi die hau guztiau aurrera eruen ahal izeteko emun deuskuzuen laguntziagaittik. Hortaz, mille, mille, mille esker.

Apurke-apurke bidien aurrera, beste 25 bete arte! Eskerrik asko, bihotzez!

Maritxu Kajoi: autobus zerbitzua

Maider Otamendi
Eskoriatza

Baziren gutxienez 15 urte Maritxu Kajoi festara joaten ez ginela eta aitortu behar dut uste baino hobeto pasa genuela, ederto ibili ginela, itzulera ordua iritsi zen arte! A ze amesgaiztoa!

Autobusez joatea erabaki genuen, pentsatuz itzulerarako autobus eskaintza handia izango zela. Inozoak gu! Goizeko 4rak aurretik joan

ginen autobus geltokira, baina ordua aurrera zihoan eta Eskoriatzarako noranzkoan ez zen autobus bat bera ere pasatzen. Geltokian pilatzen ari ginenak gero eta haserreago, harrituta. Taxiren bat eskatzeko deika hasi eta erantzunik ez, zeuden gutxiak topera. Jendea urduritzen, taxi bat hartzeko elkarri mokoka, gazte bat taxi bati ostikoka, taxia gelditu eta gaztearekin liskarrean... ikuskizun penagarria! Azkenean, 05:45ean taxi bat hartzea lortu genuen, aurrez lotu genuelako, eta zorionekoak gu, goizeko 6etako autobusa hartzeko nahiko komeria izango genituelako, kontuan izanik autobus geltokian pilatutako jendetza. Pasa omen da dagoen autobus bakarrean sartu ahal izateko jendea elkarri bultzaka borrokan hasi eta autobus gidariak ertzainei deitu behar izana.

Hain zaila al da horrelakoetan autobus bereziak jartzea? Ez al genuke hori bultzatu behar denon segurtasunerako? Arduradunek zerbait egin dezatela, mesedez!

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena-abizenak, herria eta telefonoa. Gutuna helarazteko: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

goiena[“]
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ulfane Madera
Sailletako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Oxel Arrieta.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.850 ale
Difusioa: 18.507 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Urriaren 21etik aurrera Goiena aldizkaria **indartsuago etorriko da**

- + Albisteak zabalago emango dizkizu.
- + Orrialde gehiago izango ditu.
- + Neurri erabilgarriagoa izango du.

goiena[“]

HERRIAK

ONATI

Ordu erdian behin emango du zerbitzu gaur abiatu den herribusak

- Kultura etxetik, osasun zentrotik, kiroldegitik eta ikastetxeetatik gertu ditu geldiuneak
- Hiru hilabetez egongo da martxan eta erabilerak jarraipena erabaki dezake

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Gaurtik, egubakoitza, Oñatin ere badago herribus zerbitzua. Herriko punta banatan dauden auzoak lotuko ditu, Ugarkalde eta Kasablanka, eta 21 geldiune izango ditu guztira. Herritarrendako zerbitzuak eskaintzen dituzten eraikin asko ibilbidean sartzen dira; esaterako, postetxea, osasun zentroa, kultura etxea eta ikastetxeak.

Ibilbidea

Hiru hilabetez egongo da zerbitzua martxan eta denbora tarte hori proba modukoa izango da aurrerantzean udalak hartuko duen erabakia kontuan hartzeko. "Denbora horretan ikusiko dugu jendeak zenbateraino erabiliko lukeen herribusa eta zer egongo litzatekeen hobetzeko", dio mugikortasun zinegotziak, Irati Etxeberriak. Hasieran proba moduan erabiliko delako, ez dute aparteko lanik egin geltokiak jartzeko, adibidez. "Lurraldebusek Oñatin dituen geltoki guztiak erabiliko dira eta baita Urgain-Errekalde-rena eta Elkar Hezirena ere. Beste guztiak berriak dira. Saiatu gara batetik bestera ahalik eta distantzia txikiena uzten, dauden aparkaleku plazak mantenduz, herritarrak eroso hel daitezen euren helmugara", zehaztu du Irati Etxeberriak.



Herribusak izango dituen geldiuneak markatzen aritu dira aste honetan; martitzenean osasun zentrokoa egin zuten. | O.E.

San Martin auzoa ez da ibilbidean sartzen eta horrek sortu dituen kritikei erantzunez, haxe adierazi du mugikortasun zinegotziak: "Pentsatu genuen herribusak herriko punta banatan dauden auzoak elkaru behar zituela eta horrekin batera adinean aurrera doazen herritarrak bizi diren kaleak edo gunek.

Bestalde, ordu erdian egiteko moduko ibilbidea jarri gura genuen, autobus bakarria ibil dadin zerbitzua ematen. San Martin sartuz gero ez zen posible denbora muga horretan egitea itzulia eta auzo horretan gazte asko bizi direla ikusita erabaki dugu, oraingoz, behintzat, ibilbidetik kanpo uztea San Martin.

sa. Oraindik bakarrik ibiltzeko txikiak direla iruditzen zaigu eta eskolatik etxerako bidaia egunean bizpahiru aldiz egiteak gastua handitu dezakeela ulertzen dugu. Bestalde, urritasunen bat duen bidaiaariaren laguntzaileak ere ez du ordaindu behar izango. Lurraldebuseko bidaietan ere horrela da", dio Etxeberriak.

Leintz garraio enpresak emango du zerbitzua; 27.000 eurotan esleitu dio udalak.

Bidegurutzea

Herribusaren proiektua hiri-mugikortasun planeko proposamenetatik sortutakoa da eta beste ekimen batzuk ere sartuko dira indarrean urtea bukatu aurretik. Txaketuaneko bidegurutzea, esaterako, zamaianak egiteko bakarrik egongo da zabalik goizean eta gainerako ibilgailuek ezingo dute hortik pasatu; saihesbidetik sartu beharko dira herrira. "Herribusa, aldiz, pasa ahal izango da bidegurutze horretatik", zehaztu du mugikortasun zinegotziak.

Bidegurutze hori ibilgailuendako itxiko dute Atzeko kaleko obrak bukatu eta herriguneko aparkaleku sistema arautua martxan jartzearekin batera. Baina hori noiz izango den ez dago jakiterik oraindik. "Araututako aparkaleku sistema jartzeko makinak urriaren 24rako prest egongo direla esan digute eta ordurako kaleetako plazak margotuta egongo dira, egoiliarrendako zeintzuk izango diren bereizteko. Udazkenean gauzatuko da dena, baina egun zehatzik ezin jakin oraindik", dio Irati Etxeberriak.

Informazio bilera astelehenean

Mugikortasun iraunkorra helburuz, hiri-mugikortasun planaren barruan ekintza bat baino gehiago egitea pentsatu du Oñatiko Udalak eta horien gaineko informazio bilerak antolatu ditu. Bi egin dira, horietako bat merkatariekin, eta hirugarrena astelehenean, urriak 17, egingo dute. Bilera osoko bilkuren aretoan izango da, udaletxean, 18:30ean.

Udal ordezkariak egongo dira bilera ireki horretan eta euren planak zeintzuk diren azalduko dizkiete oñatiarrei bertatik bertara. Herritarrek, bestalde, aukera izango dute edozein zalantza argitzeko, adibidez, araututako aparkatze sistemaren oinarriak, ibilgailuek beharko duten baimen-txartelari buruzkoak, Ramon Irizarren jarriko duten piboteari edo zamaianen ordutegiari dagozkionak.



Logoa. | OÑATIKO UDALA

Doan

Autobusak 22 lagunendako tokiak du eta mugikortasun arazoak dituztenendako arrapala ere bai. Ordutegiari dagokionez, 07:30etik 21:00etara bitartean ibiliko da astelehenetik egubakoitzera bitartean, eta 09:00etatik 14:00etara zapatuetan. 30 minutuko maiztasuna izango du; erdietan Ugarkaldetik abiatuko da eta orduetan, Kasablankatik.

Bidaia bakoitzaren prezioa izango da euro batekoa, baina bonoak egongo dira; bost euroko txartelarekin hamar bidaia egin ahal izango dira. Txartel horiek autobusean bertan eskatu behar zaizkio gidariari, eurek erabiltzaileen kontrol zehatzagoa izan dezaten. "Hala ere, guztiek ez dute ordaindu behar. 10 urtetik beherako umeek, esaterako, doan erabili ahal izango dute herribu-

Jakin beharrekoak

- Ordu erdiro egongo da herribus zerbitzua; erdietan Ugarkaldetik abiatuko da eta orduetan Kasablankatik.
- Bidaia bakoitza da euro bat; hamar bidaia egin daitezkeen bost euroko txartelak eros daitezke autobusean.
- 10 urtetik beherakoek ez dute ordaindu behar; ezta urritasunen bat duen bidaiaariaren laguntzaileak ere.
- Autobus bakarria dago: 22 plaza eta arrapala ditu. autobusak.

Eztiarekin gozotutako eta kantuz girotutako azoka

Baserritarren merkatu berezia bihar Seber Altube plazan (09:00-14:00)

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Berezia izango da biharko base-
rritarren azoka (Seber Altube
plaza, 09:00-14:00). Batetik, ohiko
azoka egongo da; 14 postu egon-
go dira: Arrasateko bost, Deba-
goieneko lau, beste eskualde
batzuetako hiru eta sukalderako
zein ortu edota lorategirako tres-
neria saltzen dituen beste bi.

Ohiko azokaz harago, Deba Garaia Landa Garapenerako elkar-teak Mankomunitateko Turismo Sailarekin batera antolatutako Jardunaldi Gastronomikoen barruan, Eztiaren Eguna ospa-tuko da lehen aldiz. "Helburua da erlezaintza ezagutzea ematea. Gure sorpresarako konturatu gara ibarrean 65 erlezain ditu-gula eta Arrasateko azokaren kokapena eta egitura oso egokiak dira lan horren erakusleihu gisa",

Dastatzea eta tailerra

Postu batzuk egongo dira erleen mundutik datozen produktuekin eta horrekin batera ukenduak eta kosmetika naturala saltzen dituen postu bat ere egongo da. Gainera, Gipuzkoako Erlezainen Elkarteak utzitako materialarekin erakusketa bat ere antolatu dute. Eta hori gutxi balitz, ezti dastatzea ere egongo da. "Jendea animatu nahi dugu askotariko ezti motak dastatzera, ikusgarria izango da. Eta kandelak egiteko tailer bat ere izango dugu. Lehen edizioa izateko eta formatu txiki-
kian izan arren, polita geratuko dela esango nuke; hileroko azoka borobilduko du", dio Diazek. Era-

kusketa, dastatzea eta kandelak egiteko tailerra bertako erlezainek gidatuko dute: "Jende gaztea ere badabil erlezaintzan, gure sorpresarako". Ezti-dastatzea 11:30ean hasiko da gidari baten azalpenekin eta, kandela tailerra, berriz, 12:30ean. Bietan edonork hartu ahalko du parte, doan; momentuan bertan agertzearekin nahikoa izango da parte hartze-ko. Eguraldiak laguntzen badu, gainera, erleak ikusteko aukera ere egongo da bertatik bertara.

Eperra Ikastolaren alde

Baserritarren azokak Xiberoko Eperra Ikastolaren alde egingo du biharkoan. Badira 15 urte gutxienez, Bedoñan bizi den xiberotar baten ekimenez Gabonetako saskiak zabaltzen direla Arrasaten eta bailaran. "Xiberotarrek aspalditik nahi zuten hemendik jasotzen duten laguntza eskertzea eta bide batez hemengo eragileekin harremana estutzea", esan du asteon Arrasate Irratian AED-ko Itxaro Artolak.

Aurtengo kanpaina aurkeztuko dute azokan, otarretan saldu ohi dituzten produktuak erakutsiz: gazta, ezlia eta ahatetik eratorritako produktuak, besteak beste. Kantuan ere egingo dute eta azokan egoteaz gain, egun pasarako plana ere zehaztu dute herriko eragile ezberdinekin batera (ikus 4. orria).



Adin guztietarako eskaintza izango du biharko baserritarren azokak. | GOIENA

Harrera familien eredu hedatzeko kanpaina, abian

'Benetako besarkadak' ekimenaren barruan, hitzaldi informatiboa urriaren 19an Kulturaten

J.B. | ARRASATE

Gipuzkoako Diputazioak harrera familien eredia zabaltzeko kanpaina abiatua du, *Benetako besarkadak* deitutakoa. "Figura hori zabaldu nahi dugu Gipuzkoan, babes beha-

rean dauden haurrak, modu solidarioan, etxean hartzeko prest dauden pertsonak erakartzeko", esan dute kanpainaren sustatzaileek. Ikerketek diotenez, egiaztatuta dago umeen ongizatearen

sustapena inbertsio eraginkorra dela belaunaldien arteko pobrezia eta desberdintasuna murrizteko: "Eta ez dago zalantzarik familia harrera oso neurri eraginkorra dela euren familiekin bizi ezin diren haurrei beste aukera bat emateko".

Kanpaina sare sozialen bidez irekiko dute bideo batekin, eta hitzaldiak eskainiko dituzte zortzi udalerritan. Debagoienean, Arrasaten egingo dute geldialdi bakarra: urriaren 19an izango da, Kultura-teko areto nagusian (18:00). [Informazio gehiago 4. orrian]



Auzoko dokumentaleko emanaldiaren une bat. | EKIN EMAKUMEAK ELKARTEA

Euskaratik hurbil bizi diren auzotarren inplikazioa behar dugu

K OMUNITATEA GOIENA

EKIN EMAKUMEAK ELKARTEA | ARRASATE

Auzokoak dokumentalaren emana dia izan genuen hilaren 10ean Kulturateko Jokin Zaitegi gelan. Jende gutxi etorri bazen ere, eskerrak eman nahi dizkiegu etorritakoei, tartean, zinegotzi diren Amaia Azpiazuri eta Amaia Larrañagari. Emanaldiaren alde positiboaz geratzen gara; etorri zirenen gaiarekiko interesaz eta arduraz, alegia. Tertulian aritu ginen gustura, dokumentalak sortutako sentsazioak eta iritziak partekatuz. Gainera, dokumentalaren protagonista batzuk ere bertan izan genituen, baita Auzoko egitasmoaren sortzailea den Euskaltzaleen Topaguneko ordezkari bat eta Arrasateko Auzoko

egitasmoan aritu diren auzotar eta dinamizatzailleak ere. Zuzenean eta aurrez aurre jaso izan zuten ikusle-entzuleek haien esperientzia eta gogoetak. Auzokideak, hau da, euskarara hurbildu nahi dutenak, badaude, baina euskaratik hurbil bizi diren auzotarren inplikazio falta ondorioztatu genuen, hots, euskarara hurbildu nahi dutenei bidea erraztuko liekeen herriko euskal hiztun, benetako herritar sentiarazi eta integrazioarako bidea erraztuko liekeen auzotarrak beharrezkoak ditugu.

Ikusleek dokumentala oso gustuko izan zuten, barruak astindu eta hausnarketarako bidea zabaltu ziela aitortu ziguten.



GAKO

"Jai egun arrotzean", auzolana

Urriaren 12ko "jai egun arrotza" aprobetxatu zuen Arrasateko Gazte Alternatiboen Kofradia Organizatuak (AGAKO) gaztetxean askotariko lanak auzolanean egiteko. 30 bat lagun elkartu ziren eta pintadak garbitu, soberan zeuden hainbat gauza bota eta denetarikoa konponketa lanak egin zituzten.

[illegible]

Herriko 19 langabe kontratatzeko lan-poltsa jarri du martxan Udalak

J.B. | ARRASATE

Udalak, Enplegu Planaren barruan, herriko 19 langabe kontratatuko ditu. Udal Gobernuaren helburua da, ohar bidez jakinarazi dutenez, herriko ekonomia eta enplegua sustatu eta horiek indarberritzearen alde urratsak egiten jarraitzea.

Gobernu taldeak "gogor" heldu dio enplegua sortzeko "konpromisoari" eta, Lanbide-ekin elkarlanean, herriko 19 kontratatuko ditu. Gobernuak ildo horretan jarraitzeko asmoa agertu du: "Arrasatear guztien ongizatea bermatzeko urratsak egiten jarraituko dugu".

Adierazi dutenez, esparru ezberdinetako lanpostuak jasotzen ditu; Gipuzkoa etorbidea konpontzeko igeltseroa eta peoia, mantenu lanak burutzeko lorezaina, herriko zenbait eremu margotzeko pintorea edota herriko espazio publikoak, landa gunek eta errekak garbitzeko taldeburua eta hiru langile. Horrez gain, hiru administrari,

informatika laguntzailea, erakusketa dinamizatzalea, gazte lokalen inguruko azterketa burutzeko gizarte hezitzailea edo gimnasioaren erabilera kudeatzeko kirol aholkulari postuak ere jasotzen ditu lan-poltsak. Bestetik, esparru teknikoago baten, digitalizazio teknikaria, ingeniari tekniko elektrikoa, Udalaren ondasunen gaineko azterketa eta inbentarioaren eguneraketa egiteko zuzenbidean lizentziatu bat eta Mondraberriko eta Goienako argazkien katalogatzailea kontratatuko dira.

Izen-ematea

Interesa duten herritarrek Lanbideko bulegoan zein webgunean edo Udalaren webgunean (www.arrasate.eus) eman ahal-ko dute izena; era berean, BAZen eta Udalaren webgunean izango dira eskuragarri prozesuaren gaineko jakinarazpenak, hala nola, izangaien zerrendak eta frogen emaitzak.



GIPIZKOAKO DIPUTAZIOA

Aurrekontuak, herritarrekin

Aurrekontu Irekiak partaidetza ekimenaren barruan, Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioko diputatu Imanol Lasa Arrasaten izan zen urriaren 6an. Hiru helburu ditu ekimenak: Diputazioak egiten duena "ondo" adieraztea, 2017rako aurrekontu proiektuari begira herritarren iradokizunak eta hausnarketak jasotzea eta, azkenik, kontu ematea. Etxaluzen jaso zituen Lasak herritarren ekarpen batzuk.



Aranzadi elkartekoak Kurtzetxikin, neurketak egiten. | ARANZADI

Kurtzetxikiko gotorleku "ezezaguna" azaleratzera

Eraikitze datarik ez badago ere, Aranzadikoek uste dute gerra napoleonikoen garaian egindakoa dela

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Kurtzetxiki albiste da berriro ere. Udalak azken urteetan eremua erosi eta bertan aisialdirako naturgune bat sortzeko egitasmoaz gain, aspaldi gotorleku bat egon zela erakusten duen aurkikuntza egin zuen udaberrian Jesus Angel Arrate biologoak, "ustekabea". Horren berri izan ostean, Udalak ikerketa burutzeko proposamena luzatu zion Aranzadi elkarteari. Haren jatorria dokumentatzea "ezinbestekoa" dela uste du Udalak, gune horren garrantzia ezagutzeko. Aranzadiko Alfredo Morazaren zuzendaritzapean abiatu da ikerketa.

XIX. mende hasierakoa?

Morazak dioenez, "ezezagun handi bat" da Kurtzetxikiko gotorlekua: "Ez dugu bere eraikitze datu-rik inondik ere, ezta kronologia eta bilakaera aldetik ere. Hala eta guztiz ere, gotortze militar garai-keen adibide bikaina da; hala-koak oso gutxi mantendu dira Euskal Herrian. Orain arrasatear-reen esku dagoen ondare baliabi-de bihurtu da". Kronologia eza-gutaraziko duen datu historikorik

ez badago ere, arrastoek Gerra Napoleonikoen garaian jartzen dute eraikitze data, 1810. urte aldera. "Helburua zen Errege-Bidea zaintzea, penintsularen eta Frantziaren arteko komunikabi-de nagusia, bertatik frantziar armadaren zati handiena pasatu zelarik, hau da, 300.000 gizon baino gehiago", dio Morazak. Geroago, 36ko Gerran, muinoa borroka toki bihurtu zen. Erasoa Bedoñatik heldu zen eta hark Arrasate faxisten esku galtzea eragin zuen, 1936ko irailaren 26an.

Oinplanoa, oso erregularra

Kurtzetxikiko gotorlekua muino txiki baten (531 metro) dago, eta Morazak argitu du gotorlekuak oso erregularra den oinplanoa aurkezten duela, alboetan gurai-ze moduko bi errezel bikoitzekin osatutako dekaedro edo hamar aldeko poligono eta zirkuluerdi formako bi danbor dituen: "Azken hauetan egongo ziren ziurrenik artilleria-piezak. Esparrua babes-teko lubakia zuen, eta bere hor-mak lurrezkoak izango ziren seguru-rik egurrezko oholesiren batekin".

Ingurumen Eskolak 25 urte bete dituela ospatzeko ekitaldia etzi

J.B. | ARRASATE

Udala auzoko Ingurumen Eskolak 25 urte beteko ditu. Eskolak 1991. urteaz geroztik dihardu lanean helburu bakar batekin, hots, etorkizun justu, osasuntsu eta jasangarri bat eraikitzeko ahaleginetan bere alea ereiten: "Horretarako ikasleei ingurume-na ezagutzen laguntzen diegu, naturarekiko jarrera positiboak bultzatuz eta dauden arazoekin jabetuta konponbideak erakutsiz".

Eskolaren 25. urteurrena ospatzeko ekitaldi berezia egingo dute etzi, domeka, eskolan bertan. Luncha egongo da eskola ondoko frontoian (13:00) eta ondoren instalakuntzen bisita egingo dute. Baina ez da hori

izango etziko egitarauko ekitaldi bakarra: aurretik, 09:00etan hasita, Udala eta Besaideren arteko ibilbidean egindako obrak eta seinalizazioa ezagutuko dituzte.



Udalako Ingurumen Eskola. | GOIENA

Biteriko azokan saldu ahal izateko lizentzia, urriaren 25era arte

Azaroan hasita, azoka jarriko dute zapatuetan Biteri plazan eta salmenta lizentziak emateko prozedura zabalik dauka Udalak urriaren 25era arte. Interesatuak BAZen edo lege baliozkoa den beste edozein eratan aurkeztu behar dute eskaera, eskaera ereduari jarraituta; ezinbestekoa da eskaera eredu errespetatzea.

Boluntarioen elkarteei zuzendutako saioak urriaren 17tik 20ra

Udaleko Prebentzio Sailak antolatu ditu, Hezkide Eskolarekin elkarlanean. Helburua da elkarte horietako kideei euren lana burutzeko eta kudeaketa errazteko eta ahalbidetzeko tresna eta baliabi-deak azaltzea eta lantzea. Saioak Kultureteko Jokin Zaitegi gelan izango dira, urriaren 17tik 20ra.

Artzaintzaren Bidea egiteko seigarren etapa urriaren 25an

Besaidek gertu dauka Artzaintzaren Bidearen seigarren etapa, Villalba de Losa eta Boveda artekoa –20 kilometro inguru–. Izena eman behar da urriaren 17tik 19ra kutxazain edo Internet bidez, eta urriaren 18an eta 19an Besaideko egoitzan (19:30-20:30). Prezioa da hamar euroko bazkideentzat eta 13 eurokoa bazkide ez direnentzat.

OHARRAK

1949AN JAIOTAKOAK

Urriaren 22an elkartuko dira eta aurtien Muskiz aldean pasatuko dute eguna. Oraindik izena emateko aukera dago, Lore lurrin dendan (943 79 52 50). Aurtien ere, Jesus Markaidek konposatutako ereserkiak ez du hutsik egingo.

1956AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 5ean elkartuko dira, Garibaien (09:00). Oiar-tzuneko Arditurri meazuloak bisitatuko dituzte, besteak beste. Izena emateko 60 euroko ordainketa egin beharko da: 3035 0202 75 2021046272 (Laboral Kutxa).

1964AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 5ean elkartuko dira Garibaien (10:00) eta Laguardiara joango dira. "Han bizi den gure kinto Felipe Najerak gidatuta, bisita bereziak izango ditugu", adierazi dute. Izena eman behar da urriaren 25a baino lehen, 65 euro ordainduta: 2095 5055 50 9113880736 (Kutxabank).

Zabaldu berria!

Chic
ESTILISTAK



Promozio baliagarria, jaiegun bezperetan eta abenduaren 20tik 31era izan ezik.

PROMOZIO BEREZIA

Astelehena: Gizonek eta umeek %10eko deskontua (moztea)
Astearte: Orraztea eta tratamendua 20 €€
Asteazkena: Metxak eta orraztea: 43 €
Osteguna: Ile-sustraiaren kolorea + orraztea 30 €€
Ostirala: Moztea eta orraztea 30 €€

65 urtetik gorakoentzako
%10eko deskontua

25 urterik beherakoentzako
%10eko deskontua

Astelehenetik asteazkenera: 09:30 – 16:00
Ostegunetan eta ostiraletan: 09:30 – 19:00 | Zapatuetan: 09:00 – 13:00

Tel.: 943 04 10 07 | Antso Abarka 6 | Zigarrola | Arrasate

Marife Nogales | Mezzosopranoa

"Aspaldidanik egin dut amets Rosinaren papera betetzearekin"

- ▶ 'El Barbero de Sevilla' operak ikuskizuna eskainiko du datorren martitzenean
- ▶ Marife Nogales mezzosopranoak Rosinaren papera beteko du

IBON CARMONA | ARRASATE
Gioacchino Rossiniren *El Barbero de Sevilla* XIX. mendeko opera ezagun bat da, komedia musikalaren barruan sartzen dena. Bilboko ABAO elkarteak Euskalduna Jauregian eszenaratu zuen obra, eta orain, Ozenki elkarte arrasatearrak operako protagonista nagusiak Amaia antzokira ekartzea lortu du. Ikuskizuna datorren martitzenean izango da, 20:00etan hasita, eta sarrerek 30 eurotan salduko dira; oraindik sarrerek salgai jarraitzen duten arren, erdia baino gehiago saldu dituzte jada. Taula gainean arituko den protagonistetako bat Marife Nogales mezzosopranoa da. Abeslari andoaindarrak ibilbide luzea dauka opera arloan, eta obra honetan, Rosinaren papera betetzen du.

Zer aurkituko dute datorren asteartean Amaia antzokira joango direnek?

Publikoak Rossiniren opera ospetsuenetako batez gozatzeko aukera izango du, opera bufen artean ezagunetakoa dena. Oso ikuskizun dibertigarria da. Musika energia positiboduna, freskoa eta alaia izango da, melodia ederrez lagunduta joango dena.

Nola definituko zenuke operaren argumentua?

Kulebroi tankerako nahaste-borraste bat dirudi; izan ere, pertsonaiak izaeraz aldatzen dira. Operak Figaro bizarginaren istorioa kontatzen du, Almavivako kondea eta Rosina gazte sevillarra ezkonarazten laguntzeko plan bat abiaraziko duena. Plana oinarritzen da Rosina bere etxetik aske uztean; izan ere, bere tutore eta ezkongai Don Bartolo maltzurak neskatxa giltzapetua dauka.

Nola eramaten da aurrera hainbeste jendek parte hartzen duen entsegu bat?

Entseguak sail ezberdinetan banatuz egiten ditugu. Egia esan, lanalde jendetsua daukagu. Inter-



Marife Nogales mezzosoprano andoaindarra. | M.N

"Pertsonaiak izaeraz aldatzen dira, kulebroi antzeko bat sortuta"

"Abeslari, orkestra eta teknikariek 100 pertsonako taldea osatzen dugu"

prete nagusiekin batera, operak 40 profesional ez osaturiko orkestra bat dauka, bere zuzendari eta Donostiako Sasibil lirikako koruarekin batera. Horrez gain, muntaiak, atrezzo eta jantzitegiko arduradunek, besteak beste, gai-

nerako lantaldea osatzen dute; 100 bat pertsona guztira.

Hainbat ikuskizunetan parte hartu duzu, baina oraingo honetan, opera ezagun bateko pertsonaia nagusi baten paperarekin. Zer sentitzen da?

Erantzukizun handia, baina, aldi berean, ilusioa eta poza. Modu serioan kantua ikasten hasi nintzenetik, *Rosina* nire pertsonaia gustukoenetako bat izan da, eta beti egin dut amets paper hori betetzearekin.

Nola ikusten duzu operen egoera Euskal Herrian?

Kalitatezko egitarau eta proiektuak egiten dira. Bilboko ABAO elkarteak, esaterako, urteak daramatza opera denboraldiak antolatzen, eta, krisiari aurre eginez, aurrera egiten jarraitzen dute esfortzu eta ilusioarekin. Momentu honetan, ABAOko opera denboraldia estatuko garrantzitsuenetakoa dela esan daiteke.

Udalako lehen auto igoera antolatu dute urriaren 29rako

I.C. | ARRASATE

Azken urteetan *motorshow*-ak antolatu ostean, oraingoan, auto igoera antolatu du Arrasateko A+Gas taldeak. Lasterketa Udala auzoan egingo da, urriaren 29an, 12:00etan hasita.

Auto igoera Euskadi eta Gipuzkoako Mendi Txapelketarako azken proba puntuagarria izango da eta bost txandaz egongo da osatuta; bi entrenamendukoak, beste bi ofizialak eta bat librea. Orokorrean, txapelketek hiru txanda izaten dituzte, baina, Udalako zirkuitua laburragoa izanik, bi txanda gehiago egingo dituzte. Urriaren 21era arte inskripzio epeak irekita jarraituko du, eta, arra-

zoi horregatik, oraindik ez dago konfirmatuta zenbat kategoriatako autoak lehiatuko diren.

2,8 kilometroko zirkuitua

Zirkuitu nahiko azkarra da, eta igoerako amaierak bereziki bihurtune azkarrak izango ditu. Ibilbidearen zati bat nahiko zuzena izango da. Horrez gain, chicane bat ipiniko dutela jakinarazi dute antolatzaileek.

Sari banaketa Pertuti parean

Lasterketa Udala auzorantz eramaten duen errepidean egingo den arren, sari banaketa ez da bertan egingo, Pertuti pizzeria aurrean baizik. Mugarrietako industrialdean dago hori.

"Gutxienez beste hiruzpalau jokalaria beharko genituzke"

I.C. | ARRASATE

Arrasate Errugbi Taldeko 16 urtez azpiko taldeak kaptazio kanpainarekin jarraitzen du. Azken urteotan hainbat talde-tako jokalariek bat egin behar izan dute; aurtun, ordea, ekipa propioa izango dute, talde txukuna osatu dute eta. Era horretan, ARTk ordezkaritza izango du 16 urtez azpiko kategorian. Hala ere, taldea osatzeko eta errugbia gertuagotik ezagutzeko "gonbita" egin diete adin horretako gazteei.

Denboraldi honetan, jokalaria multzo dezente bat batu da harrobian. Bada, Ane Agirre taldeko presidentearen esanetan, taldea oraindik ez dago

osatuta: "Jokalarien kopurua gutxienezkoa bada ere, denboraldiari 16 urtez azpikoetan behar bezalako bermekin ekin nahi badiogu, gutxienez beste hiruzpalau jokalaria beharko genituzke".

Aukera ezin hobea

Une honetan, taldeak hamahiru jokalaria ditu, eta, arrazoi horregatik, 13-14 urte bitarteko gazteei dei berezia egiten diete Mojategira gerturatu daitezen; taldea astearteetan eta ostegunetan entrenatzen da, 17:30etik 19:00etara. "Taldea propioa edukitzeak abantaila ugari ekarriko ditu", adierazi du errugbi taldeko presidentek.



16 urtez azpiko taldea hamahiru jokalarik osatzen dute. | ART

Blanca Martinezen eta Montse Roldanen pinturak Kajoi tabernan

Arte figuratibortik espresionismo izena duen erakusketa gaur irekiko dute, arratsaldeko zazpietan, eta azaroaren 13ra arte egongo da ikusgai. Bi margolariak Arrasate Margo Taldeko kideak dira bere sorreratik, eta erakusketako margolanetan, olio-pinturez egindako paisaiei beste mintzaira bat eman diote.

Lur Korta ipuin kontalariak bi saio eskainiko ditu

Udal Bibliotekak antolatuta, ipuin kontalari oartzuarrak bi saio eskainiko ditu Arrasaten; lehenengoa Kulturaten izango da, urriaren 19an, eta bigarrena, osterara, Santa Marina auzoko bibliotekan, urriaren 26an. Bi saioak arratsaldeko seietan hasiko dira, eta 3-4 urte bitarteko haurrei zuzenduta daude.

LANA • FISKALITATEA • KONTABILITATEA • JURIDIKOA-ABOKATUAK



zenbaki
aholkulariak-abokatuak

30 urteko eskarmentua fiskal, kontabilitate, lan eta merkataritza arloetan, enpresen, autonomoen, partikularren eta enpresa bat sortu nahi dutenen zerbitzura

Basabe Industrialdea Pab. FO - 10. bulegoa • 25 Postakutxa
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa) • Tel.: 943 71 21 12 www.zenbaki.eus



30
1986-2016

EAJk oñatiarren ekarpenak jaso nahi ditu 2017ko aurrekontuetarako

MAITE TXINTXURRETA | OÑATI

Oñatiko EAJk 2017ko aurrekontuen lanketan dihardu, eta lan horretarako herritarren proposamenak jaso nahi dituzte datozen asteetan.

Ekarpenok jasotzeko hainbat bide jarri dituzte herritarren eskura: Batzokian izango den irado-kizunendako buzoia, helbide elektroniko bat (pnvonati.partaidetza@gmail.com) eta Facebookeko orrialdea eta Twitter kontua.

Horrez gain, Lourdes Idoiaga bozeramaleak azaldu du EAJko zinegotziak ere gertu egongo direla aurrez aurre herritarrek egin nahi dizkieten iradokizunak jasotzeko. Idoiagak nabarmendu du ekimen hau herritar guztiei zabalik dagoela, ez bakarrik EAJko kide direnei.

Abenduko bilkurara begira

Ekarpenok azaroaren 15era bitartean jasoko dituzte, eta horren ostean "lanketa sakona" egingo dute abenduko osoko bilkurara begira. Izan ere, abenduko bilkuran onartuko dituzte Oñatiko Udaleko 2017ko aurrekontuak.

Oñatiko EAJk iaz ere burutu zuen antzeko ekimen bat aurrekontuei begira, eta azaldu dute orduan jasotakoak kontuan izango dituztela, herriko eragile desberdinekin landutako iradokizunak bezala. Helburua "herritarren kezkak eta behar zehatzak jaso eta horiei erantzutea" dela azaldu du Idoiagak.

Maite Zabaletak irabazi du Vitoria-Gasteiz traila 25 kilometroko distantzian

Vitoria-Gasteiz traila irabazi zuen joan den asteburuan Maite Zabaleta mendi lasterkari oñatiarra. 25 kilometroko distantzian emakume azkarrena izan zen bera; hamabost minutura sartu zen bigarren emakume sailkatua. 2:42:37 da oñatiarra lasterketan egin zuen denbora. Armentia eta Gasteizko mendietatik pasa zen lasterketa.



**CALZADOS
ALDASORO**

Zapaten, boten
eta poltsen
bilduma ederra dugu!
**Zapatu arratsaldeetan
zabalik!**

Ibargarai 32 - BERGARA
Tel.: 943 76 01 18

Ibaiak zaindu egin behar direla gogorarazteko astea

Domekan 09:00etan elkartuko dira plazan

O.E. | OÑATI

Domekan hasita, Ibai Lagun eta Zero Zabor astea egingo dute Oñatin eta ekintza bat baino gehiago antolatu dituzte. Lehenengo domekan izango da; 09:00etan elkartuko dira Foruen plazan erreka garbitzera joateko. Oinetako erosokak eta esku-larruak eramatea gomendatzen dute Natura Eskolako kideek.

Mexikoko eskualde bateko erreka izandako bilakaera erakusten duen filma, GurasSOS elkarteko ordezkariak egingo duten hitzaldia eta Zirika Zirkus taldearen *Kospo Eroak* haur antzerkia ere egongo dira astean zehar. Hilaren 22an *Ura eta*



Errekatik zikina ateratzen iaz. | GOIENA

energia mendi irteera egingo dute; Natura Eskolan eman behar da izena. 23rako, berriz, Araozko zabortegia garbitzera joateko deialdia egin dute.

Hamabi taldek hasiko dute bihar herriko futbol txapelketa

O.E. | OÑATI

Asteburuan hasiko da 2016-2017 denboraldiko herriko futbol txapelketa. Hamabi talde arituko dira lehian.

Joan den denboraldian baino talde bat gutxiago izango da beterranoen aurtengo txapelketan. Bundeswehr taldeak txapelketa utzi du, eta, honenbestez, hamabi talde bakarrik lehiatuko dira aurtengo ikasurtean. Aurrekoan bezala, multzo bakarreko liga egingo

dute eta guztiek jokatu dute elkarren aurka.

Bilera

Denboraldi berriko lehen partidua bihar, zapatua, jokatu dute: Hangola eta Etxaitxat (13:00etan), Albok eta Shatoken Moura (14:30ean), Auschwitz eta Dollygan's (16:30ean) eta Kili Kolo eta Txuskos (18:00etan).

Eguazteneko bilerara talde guztiek joan behar dutela gogorarazi dute zuzendaritzakoek.

Bihar eguerdian helduko da Foruen plazara Kilometroak ekimeneko lekukoa, Bergaratik

Zapatuan, eguerdiko 12:30ak bueltan iritsiko da Kilometroak ekimeneko lekukoa Bergaratik Oñatira, eta, hari ongietorria egiteko, ahalik eta jende gehien batzea gura du Kilometroak 2017 antolatuko duen Txantxiku ikastolak. Hala, herritarrei dei egin gura die, bihar, hilak 15, 12:30ean Oñatiko Foruen plazara gerturatu daitezen. Txantxiku Ikastolako kamiseta jantzita eroateko dei egin dute ikastolatik.

Historiaurreko migratzaileen eta erdiguneko indianoen etxeei buruzko bisitak egingo dituzte

Migrazioak eta kultura ondarea izeneko jardunaldiak ospatuko dira 22 udalerritan Foru Aldundiaren ekimenez, eta Oñatira ere helduko dira. Bihar, urriak 15, Arrikrutzeko koban, *Historiaurreko migratzaileak* izeneko bisita gidatu berezia egingo da, 10:00etan. Hilaren 23an, berriz, Gipuzkoa eta Amerika arteko migrazioen gaia jorratuko da, eta, orduko agiriak ikusteaz gain, herriko erdiguneko indianoen etxeen inguruko kontakizunak ere azalduko dituzte. Izena eman behar da Arrikrutzen edo turismo bulegoan.

Bizipoz programa martxan jarriko du udalak bigarren aldiz eta martitzenean aurkeztuko dute

Zahartze aktiboa sustatzen duen programa da Bizipoz eta bigarren aldiz jarriko du martxan udalak. 55 urtetik gorako herritarrei zuzendua dago eta bi atal nagusi ditu: tailerrak eta proiektua. Bigarren edizio honetan, osasuna eta adimen emozionala landuko dute eta horren inguruko tailerrak egingo dituzte. Xehetasunak, baina, martitzenean, hilak 18, kultura etxean egingo duten aurkezpenean emango dituzte, 18:00etan.

Iñaki Cerqueira | Musikaria

"Herritar guztiak gonbidatu gura ditut biharko musika jaialdira"

Musika elektronikoa jarriko duten zortzi lagun etorriko dira gaztelekura bihar, SLOF16ra

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Somedaylab da Iñaki Cerqueira oñatiarraren diskoetxea eta hori aurkezteko musika elektronikoko jaialdia antolatu du. Bihar da, zapatua, 16:00etan hasita, gaztelekuan.

Nolako jaialdia izango da?

16:00etatik 00:00etara musika elektronikoa jartzen ibiliko gara zortzi lagun, txandaka. Madrilgoak, Bilbokoak eta Errioxakoak dira datozenak, Bergarako Josu Aranburu eta biok salbu. Egongo garenetatik seik zigilu berarekin ditugu aterata lanak eta beste biak gonbidatuak dira.

Nolako kantuak jarriko dituzu zuk?

Denetarik. Nire kantuak jarriko ditut; bizpahiru, gainera, berriak. Baina beste askorenak ere bai.

Oñatin bestelako musika emandak gehiago izaten dira elektronikokoak baino.

Bai, baina argi nuen ni oñatiarra izanda Oñatin egin behar nuela nire produktuen aurkezpenean. Agian, asko arriskatu naiz hau antolatzen, baina argi nuen herrian egin behar nuela aurkezpenean. Urtebete da diskoetxea sortu nuela, eta momentu ona iruditu zait aurkezteko.



Iñaki Cerqueira. | GOIENA

Jende asko joango dela uste duzu?

Ez dakit, egia esan, baina uste dut aukera oso ona dela musika mota hau entzuteko. Baditu bere jarraitzaileak, baina inoiz entzun ez duten herritarrendako ere aukera ona dela uste dut. Denei luzatzen diet gonbidapena jaialdira etortzeko. Sartu eta entzuten dutena ez bazaie gustatzen, berriz kanpora ateratzeko aukera izango dute. Gainera, uste dut herriko norbaitek zerbait egingen duenean, babesa erakutsi behar zaiola.

Kontzertu gehiago izango dira?

Nire asmoa da urtero egitea bat, jaialdia Oñatin errotzea.

NIRE USTEZ

AITOR
UGALDE



Egutegia

Ostirala izango da zutabe hau argitaratzen den eguna, asteburuaren ataria, baina berehala jarriko gara astelehenean aste arruntari egiteko prest. Horixe izango da diferentea datorren astean, aste erdian jairik izango ez duen aste arrunta izango dela, azkeneko biak ez bezala (Oñatin bizi garenontzat aurreko hiruak ez bezala). Denbora asko pasatu aurretik izango dugu aste erdian jai eguna daukan beste aste bat eta azaro arruntaren ondoren jaietz ondo osatutako beste aste bat Gabonen aurretik.

Gorri asko egutegian udazkenean, baina urte berriaren ondoren ahaztu gorriaz apirila ondo aurreratuta dagoenean

helduko den Aste Santura arte.

Egutegiarekin lotuta, ikasurte hasieran zeresana eman zuen Kantabriako gobernuren eskola egutegiak. Bi hilabete-tik behin ikasleek jai egun batzuk izatea ezarri zuen eta horrela, azaroko lehen astea jai izango dute Kantabriako ikasleek eta inauterien garaian ere ia-ia beste aste bat.

Egutegi horren atzean dagoen ideia ona iruditzen zait, jai eta atsedeen egunak urtean zehar zentzuz banatzea, lana eta atsedeen arteko proportzioak urtean zehar berdintsu mantenduz. Eta ez bakarrik eskoletarako, denoi dagozkigun jai egun horiek ere urtean zehar berdintsu banatu beharko lirakeela iruditzen zait, eliza katolikoaren ospakizunen morrontzarik gabe eta osatu nahi ez ditugun jai egun arrotzik gabe.

"Urte berriaren ondoren ahaztu gorriaz"

Duela 80 urte fusilatuak izan ziren osintxuarrak gogora ekarriko dituzte

Hitzaldiak, lubakietara bisitak eta Joseba Tapiaren kontzertua izango dira, domeka honetan hasita

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

1936ko urriaren 20an tropa frankistek bost osintxuar fusilatu zituzten: Ricardo Zangitu, Tomas eta Ildefonso Iñarra anaiak, Rufino Akizu eta Jose Garaikoetxea. Orain, 80 urte igaro diren honetan, auzokideek gertaera oroitzeko egitarau berezia antolatu dute. Duela bost urte ere egin zieten omenaldia, eta Osintxuko sarrean beraien omenezko monolittoa jarri zuten; fusilatu zituzten inguruan, hain zuzen.



1936an fusilatu zituzten osintxuarren omenezko monolittoa. | GOIENA

Datozen hitzorduak

Lehen hitzordua domeka honetan izango da, hilak 16. Osintxuko plazatik abiatuta, Krabelinaitzera joango dira lubakiak ikustera.

Urriaren 20an, berriz, fusilaketan urteurren egunean, Josu Txuekak hitzaldia eskainiko du Osintxuko liburutegian: *1936ko altxamendu faxistaren zergatiak. Desagertuak, fusilatuak. Zenbat dira? Non daude?* Xabier Arregi antolaketa taldeko kideak azaldu du ekimen honen bidez bost osintxuarez gain "Euskal Herrian izandako fusilatu eta desagertu guztiak" gogoratu nahi dituztela.

Memoria gordetzeko asmoarekin lotuta, urriaren 22rako Intxortako lubakietara bisita gidatua antolatu dute. Autobus zerbitzua jarriko dute, eta izena eman daiteke Txuringo eta Euskalduna tabernetan.

Joseba Tapia

Egun berean, hilaren 22an, kontzertu berezia izango da Osintxu-

EGITARAUA

URRIAK 16, DOMEKA

10:00 Lubakiak ikustera Krabelinaitzera.

URRIAK 20, EGUENA

19:30 Josu Txuekaren hitzaldia liburutegian.

URRIAK 22, ZAPATUA

Goizez Intxortara igoera eta ikustaldi gidatua.

20:00 Joseba Tapia.

URRIAK 23, DOMEKA

12:00 Meza fusilatuen omenez

12:45 Martxa Osintxutik monolitoraino.

13:00 Omenaldia.

ko plazan. Joseba Tapia eta Besamotzak taldeak zuzeneko eskainiko du. Tapia ibilbide luzeko musikaria da, eta proiektu berriarekin dator oraingoan. Ibilbide horretan, gerrako errepresaliatuekiko konpromisoa erakutsi izan du; hala, esaterako, 2001ean kaleratutako *Agur Intxorta Maite* lanean, gudako kantuak batu zituen. Horregatik, artista "aproposa" iruditua zaie antolatzaileei.

Omenaldia

Omenaldi egun nagusia, berriz, urriaren 23a izango da, domeka. Eguerdian fusilatuen omenezko meza izango da, eta ondoren monolitorantz abiatuko dira. Bertan, lore eskaintza egingo diete, eta aureskua ere dantzatuko diete. Bergarako hari taldeak ere parte hartuko du omenaldian. Osintxuar fusilatuen ondorengoak izango dira omenaldi horretan.

NIRE USTEZ

ANDRES OSA
'SAKONA'



Gonzalez, engainatua eta traizionatua

PSOE bere baitan duen zurrunbiloa eta eskandalua baretu ezinean dabil. Baina ikusi nor sentitu den engainatua! Han eta hemen ondasunez eta luxuz ito beharrean dabilen presidente ohia, Felipe Gonzalez: *Isidoro*.

Elkarrizketa pribatua izan omen zuen Sanchezekin eta Gobernua aukeratzeko hirugarrengoa honetan abstentziora joko zuela PPri gobernua ahalbideratzeko esan omen zion. Beno, ba, Sanchezek engainatu eta traizioa egin diola dio Gonzalezek. Begira honek, OTANen, gauza bat esan eta beste bat eginaz sartuak izan ginen. Beste bat, Nafarroa Euskadi dela eta Euskadik bere askatasuna lortzeko eskubidea duela esaten zuen. Gogoan dut, Estatuan, duela 36 bat urte, hauteskunde kanpaina tarteko, Bilboko Ercilla Hotelean prentsaurrekoa

eskaini zuela, eta Egin egunkarirako informazioa jasotzen bertan ginen. Kazetariz gainezka aretoa eta galdetu nion: "Baieztape bi horiek defendatzen jarraitzen al duzu?" Bere erantzuna, ohiko aspergarri jarduna bota ondoren, hauxe izan zen: "¿Se ha entendido?". "Perfectamente. Navarra seguirá igual y Euskadi también según usted", erantzun nion. Sahara, albora begiratu eta hor konpon! Horrela, traizioz beteriko zerrenda osatuko genuke.

Une korapilatsua bizi du P(SO)Ek. Azken zortzi urteetan 6.000.000 boto emaile galdu ditu. S eta O hizkiak galtzen joan den heinean jarraitzaileen bizkar ematea etengabea eta mingarria izaten ari da. Itsumustuan erori da P(SO)E.

Orain zer egingo duen garbi dago, abstentzioa. Sanchezek aldrebeskeria ikaragarria egin du hiruko Gobernua osatzeko saiakeran. Podemosekin hitz egin gabe, Ciudadanosekin dandor eta guzti paktua plazaratu. DBHko ikasleak ere ez luke egingo horrelakorik. Gonzalez modukoak sozio izanaz, ea non amaitzen den odol-jarria.

Lanbide orientazio zerbitzua berriro ere martxan dago

Udalak lanbide orientazio zerbitzua berriro ere abian jarri du, 3 hilabeteko etenaldiaren ondoren. Martitzen eta eguaztenetan emango dute zerbitzua, 09:00etatik 13:00etara bitartean, eta interesatuek aurrez eskatu behar dute txanda Gizarte Zerbitzuetan (943 77 91 65). "Langabezian dauden herritarrei edo enplegua hobetu nahi dutenei lagundu eta aholkatzeko zerbitzua da", azaldu du Sabino Azkaratek, Ekonomia Sustapen, Turismo eta Enpleguko batzordeburuak.

Denboraldi berriko produktuak bihartik aurrera Pop Up azokan

Bedelkarreko hogeita komertzio beraien produktuak erakutsi eta %10eko deskontuarekin salduko dituzte San Martin plazako Biltokiren lokalean. Udazkeneko eta neguko arropak, zapatak, osagarriak edota dekorazio elementuak izango dira bertan. Orduetgia honako hau da: zapatuan, 10:00-14:00 eta 17:30-20:30; eta domekan, 11:00etatik 14:00etara. Gainera, erosketaren bat egiten dutenen artean, azokan erabiltzeko 100 euroko bonua zozketatuko dute.



- Neska & Mutilak
- Bakeroak
- Tailak 36.....54



San Pedro kalea 14, behea
Tel. 943 76 07 55

Gure **15. urteurrena** ospatzeko...
Ebaki txartel hau, etorri gure dendara eta eskuratu **%10eko** deskontua artikulu guztietan!

Eskerrik asko urte hauetan guztietan gure artean izan zareten guztioi!

Astelehen eta asteartean
-urriak 17 eta 18-

%10eko
deskontua
artikulu guztietan!



'Bergarako besarkada'-ri buruz gehiago ikasteko aukera museoan

Laboratoriumen ikusgai dagoen erakusketaren bisitak eta hitzaldia izango dira

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Laboratorium museoan dagoen *Bergarako besarkada*-ri buruzko erakusketaren bueltan hiru kultura ekitaldi antolatu dituzte datozen egunetarako. Hala, hitzaldi bat eta bi bisita gidatu izango dira erakusketa ezagutzeko.

Aipatutako erakusketa hori azaroaren 1era arte izango da ikusgai, eta sarrera libre da.

Mikel Alberdiren hitzaldia

Urriaren 20an, arratsaldeko zazpietan hasita, Mikel Alberdi historialariak *Karlistak eta Libera-*

lak: Zumalakarregitarra izenburua duen hitzaldia eskainiko du museoan.

"Askotan pentsatzen dugu I. Karlistaldian Euskal Herrian soilik karlistak zeudela. Egia da karlistoak indar handia izan zuela, baina euskaldunen artean baziren ere liberalak zirenak", azaldu du Xabier Aranburu museo-
logoak. Hain zuzen, "adibiderik aipagarriena" Zumalakarregirena dela dio: Tomas Zumalakarregi karlistek izan zuten jeneralik garrantzitsuenaren izen zen. Baina familia berean bazen liberal bat,

Tomasen anaia, Migel, Madrilgo gorteetan diputatu eta senatari izatera iritsi zena".

Mikel Alberdi Ormaiztegiako Zumalakarregi Museoko Dokumentazio Zentroaren arduraduna da, eta Tomas eta Migel Antonio Zumalakarregiren biografiak argitaratu ditu.

Bisita gidatuak

Hilaren 22an, zapatua, *Bergarako besarkada*-ri buruzko erakusketaren komisarioa ere baden Alberdik bisita gidatua egingo du. 11:00etan izango da, euskaraz.



Museoan ikus daitekeen maketa bat. | AMAIA TXINTXURRETA

Hilaren 29an, berriz, ordu berean, beste bisita gidatu bat egingo du Mikel Alberdik, kasu horretan gazteleraz.

Erakusketaren harrera

Abuztuaren 31n ireki zuten Laboratoriumen *Bergarako besarkada*-ri buruzko erakusketa, eta Xabier Aranburu museologoak dio oraingoz "harrera ona" izaten ari dela.

URRIAK 20

19:00 Hitzaldia: *Karlistak eta Liberalak: Zumalakarregitarra*

URRIAK 22

11:00 Bisita gidatua euskaraz

URRIAK 29

11:00 Bisita gazteleraz.



LEIRE KORTABARRIA

Euritsua, baina jendetsua

Beste urte batez, herritar ugari gerturatu ziren Elosuko ganadu feriara. Eguraldiak lagundu ez zuenez, frontoiko estalpean bildu ziren gehienak. Iñigo Zubeldia auzo alkatea "pozik" azaldu da aurtengo parte-hartzearekin. Urtero bezala, herritarren gustuko berritasunen bat sartzen ahalegindu dira; aurtun, umeendako puzgarriak.

Udalak komunikazioa garatzeko herritarren ekarpenak jasoko ditu

Komunikazio plan estrategiko batean lanean dabil Bergarako Udalak. Lehen fasean Udalaren komunikazioaren diagnostikoa egingo dute, eta bigarrenean, berriz, herritarrek udalarekin duten harremanarena. Horretarako, bergararren ekarpenak jasoko dituzte. Inkesta bat egingo dute, urriaren 28ra bitartean erantzun daitekeena. Galdetegia Udalaren webgunean (www.bergara.eus), kiroldegian, liburutegian eta Udalean bertan aurki daiteke.

Txerra Rodriguezek 'Sutondoko kontuak' liburua aurkeztuko du

KOMUNITATEA GOIENA | JARDUN EUSKARA ELKARTEA | BERGARA

Jardun euskara elkarteak *Hasi etxetik... eta euskaraz mundura* zikloaren barruan urriaren 19rako, Txerra Rodriguezen *Sutondoko kontuak* liburuaren inguruko hitzaldia antolatu du 19:00etan Irizar jauregian.

Idazlea eta liburua

Txerra Rodriguezek Emuneko hizkuntza aholkulari egiten du lan, ahaztu barik soziolinguistika teorikoa eta, batez ere, dibul-

gazioa. *Sutondoko kontuak* bere lehen liburua aurkeztuko du: "Sutondoetan izaten diren elkarriketen antzera, anabasa nagusi dela dirudi orri hauetan. Hala ere, dena hari ikusezin batek lotzen du: soziolinguistikak eta haren dibulgazioak. Istorioak txirikordatzen dira liburuan, batzuetan umore beltzetik, beste batzuetan gordinetik. Utopiatik errealitate gordinera, ametsetik ezintasunerara maiz. Baina ilusioak eta kemenak blaitzen dituzte liburu honen istorioak".

Espoloiko jaiak ospatuko dituzte asteburuan

Gaur, egubakoitza, 17:30ean frontenis txapelketa izango da, eta 21:30ean mus txapelketa. Egun handia, baina, biharkoa izango da. 12:00etan Espoloitxoren jaitsiera egingo dute, eta ondoren haurrendako jolasak izango dira. 13:00etan Diablues&Blueciferren kontzertua. Gero, herri bazkaria izango da, eta arratsaldean gazteen jolasak eta karaokea. Iluntzean, triki poteoa, eta gauez musika. Egitaraua *Goiena.eusen* ikusgai dago.

Juanjo Alvarezek bi hitzaldi eskainiko ditu datorren astean

Goienagusi elkartearen 2016-2017 ikasturtearen barruan, EHUKo katedradun Juanjo Alvarezek bi hitzaldi eskainiko ditu datorren astean, urriaren 17an eta 19an. Bi saioak Bergarako osoko bilkuren aretoan izango dira, 10:00etatik 12:15era. Bi hitzaldiak irekiak izango dira, eta gaztelaniaz. Lehen hitzaldia TTIP akordioaren inguruan izango da, eta bigarrena, berriz, familia zuzenbidearen ingurukoa.

San Josepe elkarteak 20. Kulturaldia ospatzen dihardu egunotan

Atzo, eguna, egin zuten irekiera ekitaldia, eta gaur herriko ikastetxetako umeak joango zaizkie bisitan elkartera. Bihartik aurrera, hiru egunez, San Josepeko kideek egindako artelanen erakusketa izango da erretiratuaren etxean. Datorren astean ere deneratik izango da: hitzaldiak, abesbatzaren kontzertua, Oñatiko Ikusi Makusi taldearen antzez-lana... eta guztia hilaren 22an borobilduko dute, zapatuan, elkartean egingo duten bazkariarekin. Egitarau osoa *Goiena.eusen*.

OHARRAK

ATE IREKIAK TXAPLIGUN

Zapatuan: Txiki Txef. Domekan: Txapligu ezagutzen.

ODOLA EMATEA

Hilak 19, 18:00etan anbulatorioan.

1968KOEN KINTADA

Urriaren 29an bazkaria Etxagin. Eman izena Depor tabernan urriaren 23a baino lehen.

1972KOEN KINTADA

Azaroaren 5ean bazkaria Tartufon (14:30). Autobusa egongo

da. Hilaren 31 aurretik apuntatu Bule tabernan 10 euro utzita.

1944KOEN KINTADA

Urriaren 29an Azpeitxi jate-txean. Izen emateko: 943765867-943765022 (urriak 24 baino lehen).

1959KOEN KINTADA

Bazkaria Lasan urriaren 22an. Sartu 30 euro Laboral kutzako 3035 0009 180090097834 kontuan.

DOMEKA AZOKA

Hilaren 16an, 11:00tik 14:30era San Martin plazan.

10 urte
baino gehiago
Bergaran!

943 25 06 77

TELEIXA
BILTEGIAK

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

MIZPILDI

OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

Nuria Sanchez Poveda | Psikologoa

"Helburua da gizakiaren burmuinaz dakiguna eskoletan aplikatzea"

Bergaran izango den psikologoak nabarmentzen du haurraren bizitzako lehen 6 urteen garrantzia

JULEN IRIONDO | BERGARA
Estimulazio goiztiarrari buruzko jardunaldiak egingo dituzte urriaren 28an eta 29an Mariaren Lagundian, eta Nuria Sanchez Poveda no psikologo entzutetsua izango da saioak gidatuko dituen. 0-6 urte bitarteko haurren gurasoei eta profesionalei irakasle, logopeda, psikologo, psikopedagogo,

fisioterapeuta... zuzendutakoak dira jardunaldiak, eta izena hila- ren 26ra arte eman daiteke -75 euro-. Lekuak mugatuak dira. **Zer esan nahi dute *estimulazio goiztiarra* edo *askotariko adimena* moduko kontzeptuek?** Gure burmuinaren ahalmenak baloratzeko modu berri batekin dute zerikusia. Neurologian, neu-

ro-hezkuntza deitzen den horretan, egindako ikerketetatik datoz. Helburua da gizakiaren burmu- nari buruz dakiguna eskoletan aplikatzea. *Askotariko adimena* esanda esan nahi dugu adimena askoz ere gauza konplexuagoa dela gaur egun, duela 20 edo 30 urte uste genuena baino, burmuni- nari ezagutu dizkiogun ahalmen guztiengatik. Adimena inteligen- tzia testetan neurtzen denetik harago doa; hark ez ditu balora- tzen gaur egun oso garrantzitsu jotzen diren adimenak: adimen emozionala, intrapertsonala, inter- pertsonala... Eta horiek adimen erabat oinarritzakoak dira gizakia- ren burmuinean. Bestetik, bur- muina organo dinamiko bat da, eta batez ere eraikitzen da bizi- tzako aurreneko urteetan; beraz, *estimulazio goiztiarra* diogunean da nola eragiten dugun burmui- nean, edo nola elikatzen dugun,



Nuria Sanchez Poveda. | GOIENA

eskola egokitzeke, ikasteko gune izan dadin benetan. Ez da eduki batzuk buruz ikastea; horrek ez dakar beti ulertzea eta ikastea. Ikasleak behar dituenak dira gaitasunak lagunduko diotenak pentsatzen eta etorkizunari aurre egiten, gaur egun imajinatzen ere zaila den etorkizun bat. **Askoz ere hezkuntza pertsonaliza- tuagoa eskatuko du horrek.** Hala da, bai. Hezkuntzak izan behar du ume bakoitzaren ahal- menen eta talentuaren arabera. Kontuan izan behar da denok ez dugula berdin ikasten. **Mariaren Lagundiako jardunaldiak nolakoak izango dira?** Oso gauza praktikoa izango da. Badu zati bat teorikoa, zergatiak azaltzeko, baina bikaintasun kog- nitibo, sozial eta fisikorako pro- gramak landuko ditugu, eta esan- go dizut, adibidez, lau hanketan ere ibiliko garela.



Hamalau taldeak, aurkeztuta

Aurreko zapatuan egin zuen Bergara Kirol Elkartek futbol saileko taldeen aurkezpena, Agorrosinen. Denera hamalau izango dira 2016-2017 denboraldian mahoneroen taldeak, mutilenak hamar eta neskenak lau. Talde bakoitzaren argazkia egin zuten, eta denek batera beste bat.



SHOTOKAN

Gipuzkoako karate txapelketa

Emaitzak lortu zituzten Shotokanekoek Hondarribian: Irene Castelos irabazle kadeteetan, eta Markel Salgado hirugarren; juniorretan, Joseba Perez de Aguado lehena eta Urko Nogales bigarren; 21 urtetik beherakoetan, Andoni Mujika bigarren eta Iker Osinaga hirugarren.

Bederatzi neurketa jokatu dira asteburuan Udal Pilotalekuan
Hiru partidu gaur egubakoitza-jokatuko dira, 19:15ean hasita eta binaka; beste sei norgehiagokak, berriz, bihar, 17:00etan hasiko den jaialdian eta buruz buru. Partidu denak dira Gipuzkoako txapelketakoak; nesken bi parti- du ere badira tartean.

Lokatza: 1999 eta 2002 artean jaiotakoentzako batzarra gaur
1999, 2000, 2001 edo 2002 urtee- tan jaiotako gazteentzat eta hauen gurasoentzat batzarra egingo du Lokatzak, gaur, 19:00etan, Agorrosinen. Txi- rrindularitzan lehiatu nahi dutenentzat edo kirola ezagu- tu nahi dutenentzat da bilera.

Urriaren 23an izango da Pol Polen hurrengo irteera, Adarrara
Pol Polen gazte taldearen hurrengo irteeraren ibilbidea izango da: Basabe-Adarra-Man- doegi-Leizalarrea-Usategieta gaina. Egun osoko irteera izango da urriaren 23koa, eta eguena izango da izena ema- teko azken eguna (15 euro).

Jonathan Escaparen erakusketa, beste astebetez Aroztegin
Hurrengo egubakoitzera arte- ko aukera dago Jonathan Escaparen *AITZ.ARR.I(T)Z* izeneko erakusketa Aroztegin ikusteko. Instalazio bat da Escapak ikusgai jarri duena; eskultura eta bideo batzuek osatzen dute, besteak beste.

Stanislav Surin eslovakiarra bihar, organo zikloan
Organo Erromantikoaren Nazioarteko Zikloaren barruan, bihar 20:00etan San- ta Marinar eta doan izango da Stanislav Surin eslovakia- rraren emanaldia. Hainbat CD ditu grabatuta Surinek organo doinuekin.



Mariaren Lagundia Ikastola

ESTIMULAZIO GOIZTIARREKO JARDUNALDIAK

Núria Sánchez Povedano

Urriak 28, ostirala
16:00 h - 20:00 h

Urriak 29, larunbata
9:00 h - 14:00 h
15:30 h - 18:30 h

Mariaren Lagundia Ikastola

Espaloia Kalea, 1
20570 - Bergara
Telf. 943 76 25 40


www.mlagundia.net



MAR KAJO

Goienak Maritx
Arrasateko Herri
photocall-etik 1.
gehiago pasatu zi
askoak utzita. Era
Whatsapp zenba
argazki ederrak; bat
oso urrutikoak

goi



ITXU 2016

u Kajoi egunean
ko plazan jarritako
000 lagun baino
ren, argazki dotore
berean, Goienaren
kira ere iritsi ziren
zuk, gure mugetatik
. Eskerrik asko!

ena“



Argazki gehiago ikusteko,
eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.

Gastronomia eta folklore jaia etzi, hogeigarrenez

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA
Gastronomiari eta folkloreari urrian eskaintzen zaion jaialdia ondo baino hobeto errotuta dago herrian. Hogeigarrenak nobedade gutxi dakartza baina herritarrek ez dute hutsik egingo domekan.

Errioxa, Gaztela eta Leon, Galizia, Extremadura eta Euskal Herriko ordezkariak izango dira beste behin, Herriko Plazan. Jatekoa eta edatekoa eskainiko dituzte horiek, besteak beste, txitxi-burruntziak, hestebeteak, olaga-

rroa, urdaiazpikoa, finoa eta Errioxako ardoa. Jan eta edan bitartean kantuek eta dantzek giroa dituzte bazterrak. Errioxako Voces del Ebro taldearen emanaldia izango da batetik, eta Galizia etxeko eta Gaztela eta Leongo San Fernando taldeen dantza saioak, bestetik. Aurten, lehenengoz, Basotxokoen eskutik datorren *Kalean kantuz* ekimenak bat egingo du jaialdiarekin, eta Deba ibarreko erretiratuek kantuan jardungo dute kaleetan.

22. patxaran lehiaketa

Patxaran lehiaketak ere ez du hutsik egingo. Aurrekoetan legez, norberak etxean egindako edaria aurkeztu beharko da Herriko Plazan 11:00etatik 14:00etara bitartean. Botilen originaltasuna ere kontuan hartuko dute epaimahai-kideek. Sari banaketa 17:30ean egingo dute plazan bertan.

Urriaren 19tik aurrera edukiontzi bidezko hondakin bilketa sistema

M.A. | ARETXABALETA

Astelehenean, urriaren 17an, hasiko dira edukiontziak jartzten herriko kaleetan. Bi egun beharko dituzte Udal langileek edukiontzi guztiak dagokien lekuan kokatzeko. Eta eguaztenean, hilaren 19an, edukiontzi bidezko bilketa sistemari ekingo diote.

Behin edukiontzia jarrita, horiek erabil daitezkeela jakinarazi du Unai Elkorok, alkatea: "Hainbat tokitan zintzilikarioak kendu egin behar dira edukiontziok jartzeko; hortaz, derrigorrean erabili behar. Hala ere, astelehen eta martitzenean oraindik pasatuko dira zintzilikario-tako ontziak jasotzera. Eguaztenetik aurrera, ez". Alkatearen esanetan, bilketa sistema berriak "ondo funtzionatu" beharko luke; gainera, herritarrek "erosotasunean irabazi" egingo dute.

Cesparekin negoziatzten

Sistema aldaketak hainbat atzerapen izan ditu. Azken horien arrazoiak da Cespa enpresarekin, zerbitzua ematen duen enpresarekin, adostasunera iritsi nahia langileengan ahalik eta eragin txikiena izateko: "Kamioien ibilbideak aldatu egin dira eta horrek bi langileri eragingo die; hori negoziatzten ibili gara", dio Elkorok.

Txartelak jasotzeko

Hondakin organikoaren eta errefusaren edukiontziak zabalteko txartelak beharko dira eta gehienak dagoeneko banatu dituzte. Hala ere, baten batek behar izanez gero, Durana kalean dagoen hondakinen informazio bulegora jo daiteke egubakoitzetan (09:30-12:30) edo Mankomunitatera deitu eskatzeko (943-79 33 99).



Olagarroa gertatzen iaz, Herriko Plazan. | IMANOL SORIANO

Parte-hartze ordenantza definitzeko prozesua abian jarri du Udalak

M.A. | ARETXABALETA

Aretxabaletarren artean parte hartzea sustatzeko eta arautzeko eremu teorikoa eta praktikoa zehaztea eta adostea helburu duen prozesua jarri du abian Udalak. Herritarrek prozesu horretan parte har dezaten gura du, eta batzarra egingo dute urriaren 25ean, 18:30ean, Arkupen. "Herritarren artean parte-hartzearen gaineko gogoeta piztea gura dugu", adierazi dute.

Hiru fase zehaztu dituzte prozesu horretarako; lehenengoan gogoeta bultzatuko dute eta dagoeneko abian da talde eragilearen sorrerarekin eta herritarrei egindako deiarekin. Bigarrenetan, araudiaren gaineko proposamenak landuko dituzte; eta hirugarrenean, jasotako ekarpenekin behin behinako testuaren oinarriak adostuko dituzte eta herritarrei horren berri emango diete.



Talde eragilea lanean parte-hartze ordenantzaren gainean. | UDALA

Larrinon hasi eta errekan behera ibilaldia historia kontuekin girotuta

M.A. | ARETXABALETA

Historiari eta toponimiari lotutako zortzigarren ibilaldia egingo du Loramendi elkarteak bihar, urriak 15. *Errekan behera* izenarekin Larrino elizatean abiatu eta Urkulu inguruak ezagutuko dituzte. 08:00etan elkartuko dira Herriko Plazan (ez dago aurrez izenik eman beharrik), eta autoetan igo Larrinora han ekiteko lauzpabost ordutako mendi ibilaldiari.

Hogei aldiz erreka gurutzatu

Larrinotik Urkuluko presa azpiko tunelera joko dute hango zain-tzailearen laguntzarekin. Ondoren,

Urkulu errekan behera joango dira ia bi kilometro, erreka hogei aldiz gurutzatuta. Urzabal base-rri inguruan egingo dute hamaitakakoa eta handik berriro Larrinora igo bukatzeko. Errekan behera egin bitartean inguru hartako leku izenak eta kontuak ezagutuko dituzte.

Antolatzaileek jakinarazi dute botak eta makila beharrezkoak direla, eta polainak janztea gomen-datu dute ez bustitzeko.

Liburuxkak elkartean

Loramendiko kideek jakinarazi dute zortzigarren ibilbideari dagokion liburuxka aurten ez dutela



Urkulu, atzean Kurtzebarri dela. | M.A.

etxean jasoko bazkideek. Intere-sa duena elkartetik pasa dadila jasotzera (udaletxe zaharra); bazkide ez direnek ere hartu ahal izango dute bi euroren truke.

Kanpai-joleen argazki onenen egileek gaur jasoko dituzte sariak



Argazki irabazlea: Donemiliaga Kukulako kanpaia eta kanpai-jolea. | LUIS SANCHEZ

M.A. | ARETXABALETA

Kanpai-joleen gaineko lehiaketak badiu irabazleak, eta sariak jasoko dituzte gaur, egubakoitza, 18:30ean, Arkupen egingo duten ekitaldian.

Lehenengo saria izan da Luis Sanchez Davilak Donemiliaga Kukuluan ateratako argazkiaren-dako (Burgos); bigarrena, Luis Joaquin Ruao Tapiak Mexikoko Michoacan estatuan ateratakoarendako; eta hirugarrena, Jose Reyes Belzuncek Villablancan (Huelva) ateratakoarendako.

Arientzako kanpai-jole eskolak, Udalak eta mankomunitateak antolatutako lehiaketan 123 argazki jaso dituzte, eta oso gustura daude: "Pozik gaude jasotako kopuruarekin. Eta pozik gaude gure helburua, kanpai-joleen lana ezagutaraztea, erakusten duten lan asko jaso ditugulako".

Mobiliario
ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Erre Produksioak eskainita 'La guerra del sofá' gaur

Bikote batek sofa baten bueltan dituen eztabaidak dakartzate Lola Baldrich eta Gorka Minguez aktoreek, gaur, egubakoitza, Arkupera (22:00) *La guerra del sofá* antzezlanarekin.

Umeez, osteraz, *Martina eta paperezko basoa* txotxongiloak izango dituzte L'horta taldearen eskutik domekan, 17:00etan.

Eskoriatzako kanposantua eraberritzeko egiten dabiltzan lanak aurrera doaz

Sasoi Eraikuntzak enpresa egiten dabilen lanak azaroaren 1erako amaituta izatea aurreikusten da

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Eskoriatzako kanposantuan eraberritzeko lanak hasi dira dagoeneko. Bi alde ditu kanposantuak, berriagoa eta zaharragoa dena, eta bien arteko komunikazioa bideratzeko lanak irailaren 27an hasi ziren.

Aurreikuspenen arabera, azaroaren 1erako lanak amaituta izan nahi dituzte, baina, ahal bada, urriko azken asterako amaituko dituzte dena ondo badao, hala adierazi dute Udaletik.

Bi proiektu aurrera

Lanen aurretik, hiru proiektu aurkeztu ziren, baina bi proiektu eramango dira soilik aurrera: batetik, lurra berrituko da, zolatuz, hormigoi inpreso batekin. Honekin batera, hesia jarriko da, pareta konponduko da, zaharra botata, eta lekua handitze aldera horma-hilobi batzuk kenduko dira, bederatzi inguru.

Bestetik, irisgarritasuna hobetzeko, lehen zeuden eskailerak egokitu eta arrapala bat jarriko da kanposantuko alde berria eta zaharra banatzen diren tokian. Aritz Urrutia Eskoriatzako Udal teknikariaren esanetan: "Gaur egun, badaude eskailerak, eta



Eskoriatzako kanposantuko obrak hasi dira dagoeneko. | I.B

baita arrapala ere, baina orain arteko arrapalak %20 inguruko malda du, eta halako malda izatea arriskutsua da. Oraingoak, berriz, %8koa izango du". Hala, ezintasuna daukaten pertsonen bidea egokiago izango dute kanposantuko zati horretan.

50.000 euroko aurrekontua

Kanposantuko obrak Sasoi Eraikuntzak enpresak egingo ditu, eta Eraiki enpresak eramango du obra zuzendaritza. Aurrekontuari dagokionez, berriz, 50.000 euroko izango da hasiera batean onartu dena.

Umeen eta nerabeen inguruko formazio zikloa zapatu honetan hasiko da

Doako tailer bat eta bi hitzaldi egingo dira kultura etxean

I.B | ESKORIATZA

3 eta 18 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoei, hezitzaileei eta irakasleei zuzendutako formazio zikloa antolatu du Eskoriatzako Hezkuntza Foroak. Guzti-tailer batez eta bi hitzaldiz osatu da eskaintza. Interesa duenak hitzaldi baterako, bitarako edo hirutarako eman dezake izena, eta doakoa izango da.

Formazio zikloari hasiera emateko, zapatu honetan, Nerea Mendizabal psikopedagogo, haur masaje munduan aditu eta gizarte hezitzaileak *Errespetuzko komunikazioa*, *bizitzarako komunikazioa* tailerra emango du. Haurrekin, lagunekin, bikotekidearekin... erlazioak zaintzeko nola hitz egin eta nola entzun lantzea izango da tailer honen helburua. Norberarekin eta ingurukoekin ditugun harremanetan gertu sentitzeko eta disfrutatzeke Marshall

Rosenberg-en eredua aurkeztu eta praktikatzeko aukera izango da. Tailerra zapatuan izango da, 09:00etatik 13:00etara eta 14:30etatik 18:00etara kultura etxean. Informazio gehiago nahi duenak edo izena eman nahi duenak 943 71 46 88 telefonora deitu dezake.

Drogamenpekotasunaz

Tailerraz gain, bi hitzaldi izango dira formazio zikloaren barruan. Horietako bat *Drogamenpekotasunaren prebentzioan gurasoen esku-hartzea* izango da. Izar Arregi psikologo terapeutak emango du hitzaldia, eta bertan, galdera hauek izango dira aztergai, besteak beste: "Noiz da kontsumo kezkagarria? Zer egin dezakegu guraso bezala?".

Urriaren 19an, eguaztenean, izango da hitzaldia, kultura etxean, 17:30ean euskaraz eta 19:00etan gazteleraz.

Genero portaera lantzen

Bigarren hitzaldian, genero portaera haurren eta nerabeen artean gaia landuko da. "Neskak edo mutilak gara, baina, zergatik egiten dugu ezberdintasun hori? Zer ezaugarri ematen dizkiegu neskei? Zeintzuk mutilei? Genero batetik bestera aldatu daiteke? *Genero bikotik genero aniztasunera* hitzaldian, kontzeptu berriak ikasteaz gain, aukera berriak irekiko zaizkigu. Dena ez da zuri edo beltz, eta kolore paleta askoz ere zabalagoarekin margotu ahal izango dugu, bakoitzak (beharrezkoa balu) bere egoerara hobekien egokitzen den kolorea aurki dezan". Urriaren 26an, eguaztenean, 15:00etan euskaraz eta 18:00etan gazteleraz izango da, eta hitzaldia Guztioek elkarteak, sexu aniztasuna eta askatasunaren aldeko elkarteak, emango du.



Iñake Irastorza eta Ane Gabarain aktoreak. | TXALO PRODUKZIOAK

'Bi izarren kalenturak' antzerkia Zaldibarren

Antzerkiaz, zinemaz eta magiaz beteko da Eskoriatzako urriko egitaraua

I.B | ESKORIATZA

Iñake Irastorza eta Ane Gabarain aktoreek antzeztutako *Bi izarren kalenturak* lana Zaldibarren izango da domekan, 19:00etan. Txalo Produksioak konpainiak ekoiztutako lana Begoña Bilbao Lejarzegik zuzendutakoa da, eta obran komedia izango da nagusi.

Bi emakumeren arteko maitasun eta gorroto sentimenduen talka eta norgehiagokaren kontaketak komedia eran kontatuko da. Antzerki munduari buruzko satira umoretsu eta ospindu honek komedia onenaren Molierre saria jaso zuen eta Victor Haim egileak autore onenaren saria.

Antzerkiaz gain, zinema

Eguaztenetako *Filmazpit* zinea ere badator urriko egitarauan. Urriaren 20an, esaterako, *Zulatu Lagun Zulatu!* filma proiektuko da.

tatuko da, zinea jatorrizko hizkuntzan euskarazko azpigituluekin, hain zuzen. Ameriketako Estatu Batuak gasaren erauzketatik iraultzan murgildu dira eta Europako herrialde batzuek erraldoi amerikarrak hasitako bideari jarraitu nahi diote.

Magia urrian, Eskoriatzan

Antzerkiaz eta zinemaz gainera, magia ere izango da urrian. Izan ere, Imanol Ituiño magoa urriaren 23an izango da. 12:00etan tailer bat eskainiko du kultura etxean, bost eurotan, zortzi urteko gorakoentzako, eta 17:00etan, Zaldibar antzokian *Magia Parrastan* ikuskizuna izango da hiru eurotan. Tailerrean izena emateko kultura etxera deitu beharko da eta ikuskizun horretarako sarrerak kiroldegian edo *bibe.me* webgunean erosi beharko dira.

Ezkurtxo Apotzaga auzoan izango da zapatuan

2 eta 10 urte bitarteko haurrentzako jaian: San Bernabe ermitari bisita, ipuin kontaketa, jolasak eta txokolate jana egingo da. 15:30ean Intxaurtxuetako autobus geltokitik irtenda, Apotzaga auzorako bidea hartuko da, eta jaia ospatu ostean, 19:00etan izango da buelta autobusean.

Astelehenean hasiko da gripearen kontrako kanpaina

Gripearen kontrako kanpaina astelehenean hasiko da, eta abenduaren 17ra arte iraungo du. Osasun Zentroa 08:00etatik 15:00etara dago irekita, eta ordu tarte horretan hartu beharko da txertoa. Hala, txanda hartzeko, bertara joan edo 943 71 44 52 telefonora deitu beharko da.

Aingeru Guarda ibilbidea, 23

627 140 961 | furgo@ibiltariak.com

20540 Eskoriatza, Gipuzkoa

IBILTARIAK

CAMPER EKIPAMENDUAK

www.ibiltariak.com

Hezetasun arazoari irtenbidea emateko lanak

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Atzo hasi ziren Beheko auzoko lanak. Helburua, aspaldian auzotarrek jasaten duten hezetasun arazoekin amaitzea da. "Etxe aurreko belarditxoa altxatuko da eta hormigoi gorria jarriko da. Espero dugu horrela urak hobeto batu eta hezetasun arazoak konpontzea", argitu du Beñardo

kortabarria alkateak. 938,96 euroko kostua izango dute lanak.

Udaletxeko komunak

Azaroaren erdirako, aldiz, udaletxean komunak martxan izango dira. "Orain arte izan ditugun komunak ez ziren irisgarriak: ateak estuak ziren eta gurgil aulkiak ezin ziren sartu", azaldu

du Hirigintza teknikari Valen Moñuxek. 27.095,38 (+BEZa) euroko aurrekontuarekin, Zabalo Igeltsaritzak egingo ditu lanak. "Hau bukatzen denean udaletxeko eraikinak beteko du irisgarritasun araudia. Igogailua solairu guztietara doa (artxiboak barne) eta komunak ere irisgarriak dira. Eginda daukagu eraikin osoa berregokitzeko proiektua. Baina, orain, funtzionalitatea hobetzea falta da: zerbitzu garrantzitsuenak beheko solairura pasatzea, instalazio guztiak gaurkotzea, isolamendua..."



Lanak egunean abiatu zituzten Beheko auzoan. | BEÑARDO KORTABARRIA

Beñardo Kortabarria: "Herria garbi edukitzeko oinarria ez zikintzean dago"

Antzuola-Bergara arteko bidegorria egiteko sinadurak bilduko dituzte

M.A. | ANTZUOLA

Antzuolako Udal gobernua agintaldiko lehen urtean egindako lan eta ekimenen berri eman die asteen herritarrei. Beñardo Kortabarria alkateak behin eta berriro azpimarratu zuen herri txiki batean auzolanak daukan garrantzia. "Antzuola geroz eta hobea izan dadin denon beharra dago", esan zuen. Besteak beste, aurtun aurrera eraman diren ekimenen artean, Berdinbidean plana eta harrera protokoloa aipatu zituen.

Alkateak, bestalde, aurtun martxan jarri duten Landa Gara-peneko proiektu pilotua azpimarratu gura izan zuen. "Baserri inguruari bultzada eman gura diogu. Gainera, eskualde mailan fruituak emango dituela uste dugu". Aurrera begira, egingo dituzten lanen berri ere eman zuten: baserri bideak konpondu, Arrolak proposatutako rokodromoa aztertu, komun publikoak egin, Narruola proiektua abian jarri edo gaztetxearen egoeraz gazteekin berba egingo dutela adierazi zuten, besteak beste.

Baina nabarmendu zuten epe laburrean, eta Diputazioaren erantzunik ezaren aurrean,

Antzuola-Bergara arteko bidegorri zatia egiteko sinadura bilketa egingo dutela herrian.

Herritarren kezka

Herritarren kezka eta zalantzak, baina, zirkulazio ordenantza berriak eta herriko garbitasunak eragin zituzten. Orokorrean autoak erdigunetik ateratzearen erabakia ondo ikusten dutela eta herria orain bizitzeko erosoagoa

dela azpimarratu zuten. Baina, horrek eragindako aldaketen gaineko xehetasunak jakin gura izan zituzten gertutik. Eztabaida nagusia, ordea, herriko zikintasunak eragin zuen. Alkateak azaldu zuen zapatuetakoa garbiketa zerbitzua indartu egin dutela, baina herria garbi mantentzeko ezinbestekoa dela ingurukoari errespetua edukitzea eta oinarria ez zikintzea dela.



JON LEGORBURU
ANTZUOLA

"Zakarrak, hondakinak eta herriko narraskeriak arduratzen nau. Lagata daukagu gai hau eta ea denon artean beste bultzada bat ematen diogun herria garbi edukitzeko. Udalak lagundu eta bultzatu behar du".



PILAR ETXANIZ
ANTZUOLA

"Jarrera hori ez bada aldatzen, hurrengo belaunaldiak ere zikintzen jarraituko dute, hori ikasten dutelako helduengandik; hala, horren aurrean zerbait egin beharra dago, eta herritarrek sentsibilizatu".



Koldo Madariaga, Olaranen. | M.A.

Ezkituko lanak erakusgai ditu Madariagak

M.A. | ANTZUOLA

83 urte ditu Koldo Madariaga antzuolarrak. Pasioz eta bokazioz isilpean margolaria izan da urtetan. Txikitatik gustatu izan zaiola margotzea dio eta autodidakta izan dela; orain, zenbait lan jendaurrean ikusgai jartzeko urratsa eman du. Olaran etxeko aretoan daude olio margoturiko 53 lan. Euskal Herriko pasaiak, mendiak, portuak... askotarikoa lan koloretsuak eta hunkigarriak direla dio.

Asteburuan, urriaren 15ean eta 16an, 18:30etik 20:30era izango dute herritarrek Koldo Madariaga artistaren lanak ikusteko aukera.

OHARRAK

MEMORIA TAILERRA

Landatxopen, hilaren 20an, 10:00etan egingo da memoria tailerra. Aurrez izena eman behar da udaletxean edo gizarte laguntzailearengana jota.

HITZALDIA OLARANEN

Antzuolako lehen sektorearen egoera azalduko dute hilaren 19an, Olaranen, 18:00etan. Maite Aristegik eta Iker Elosegik hainbat esperientzia ekarriko dituzte; lurraren transmisioaren baitan gazteek dituzten oztopo eta aukerez ere jardungo dute.

ATZEGIREN KANPAINA

Atzegik aurtengo kanpainaren aurkezpena egingo du bihar, zapatua 10:30ean eskolako patioan. Ondoren, jokoak egingo dituzte adimen urritasuna duten bailarako pertsonekin eta euren familiarekin.

ZUZENKETA

Aurreko astean, Antzuolako orriko albiste batean okerreko datua eman zen. Hain justu ere, Altxarteko etxeen gaineko albistean, alegazioak egiteko 15 eguneko epea zegoela argitaratu zen. Baina epea ez da zuzena eta zuzenketa egin beharra dago. Izan ere, hilabeteko epea dago alegazioak jartzeko.

56 gaztetxo futbolaz gozatzeko prest

Antzuolako Futbol eskola hasi da fruituak ematen. Guztira, 56 neska-mutiko antzuolarrak parte hartuko dute. Hala, mutilen bi talde osatu dituzte alebinetan (25 mutiko), benjaminetan talde bakarra (18 mutiko), eta alebinekin eta benjaminekin osatutako nesken taldea ere osatu dute (16 neska).



AKE

Auzoko proiektuaren gaineko dokumentala aurkeztuko dute gaur

Auzokoak: Elkarrekin eta euskaraz bizitzea lortu daitekeelako dokumentala aurkeztuko dute Antzuolako Olaran etxeko areto nagusian arratsaldeko seietan. "Gure herrietan bizi dugun aniztasuna kontuan hartuz, jatorri ezberdinetako herritarrek euskarara gerturatzeko hainbat egitasmo jarri ditu martxan Euskaltzaleen Topaguneak azken urteetan. Elkarrekin eta euskaraz bizitzea posiblea dela erakusten diguten proiektuak dira, eta horretarako ezinbestekoa da euskaldunon ekarpena. Mezu hori zabaltzen laguntzeko egin da dokumentala", azaldu dute proiektuaren bultzatzaileek.

Kurtso berria hasteko ordua heldu da

Aramaioko bertsolari eskolako lagunek gaur egingo dute ikasturte berriko irekiera ekitaldia

XABI GOROSTIDI | ARAMAIO

Ikasturte berria ate joka dator eta Aramaioko bertso eskolako kideak prest daude beste urte batez euren afizioa aitzakia hartuta batzen jarraitzeko.

Gaur, egubakoitza, egingo dute bertso urte berriaren jaia Sastiñan 19:30ean. Gazte eta helduek osatzen duten Aramaioko bertsozaleen familiak beste urte batez elkartuko direla ospatuko du, eta, gainera, ez dira bakarrik izango. Iazko jaialdian Julio Soto eta Unai Gaztelumendi bertsolarien bisita jaso zuten, eta aur-

ten ere gonbidatu bereziak izango dituzte Sastiñako oholtza gainean.

Bartra eta Gaztelumendi

Oihana Bartra bilbotarra eta Beñat Gaztelumendi añorgarra izango dira aurtengo irekiera jaialdira etorriko diren bi artistak.

Gaztelumendirentzat ez da aurtén Aramaioa datorren lehen aldia izango. 2015eko Gipuzkoako txapelduna apirilean ospatutako munduko inprobisatzaileen topaketara ere etorri zen, Xabi Igoa-



Beñat Gaztelumendi Aramaioa bueltatuko da gaur. | IMANOL SORIANO

rekin batera euskal bertsolaritza ordezkatzera.

Bertso Eskola osasuntsu

Bigarren urtez jarraian, lau talde izango ditu Aramaioko bertso eskolak: 11 eta 13 urte bitartekoa, 14 eta 15 urte bitartekoa, 16 eta 18 urte artekoa eta helduena, hain zuzen ere.

Xabi Igoarentzat albiste ona da aurtén ere lau taldeak mantentzea. "Hiru talde izatetik lau izatera pasa ginen duela bi urte. Aurtén talde eta pertsona kopuru bera arituko gara; beraz, positiboa da guretzat galerarik ez edukitzea. Aramaion 30 lagun inguruk osatzen dugu bertso familia, eta pozgarria da oso".

Ainara Inuntziaga | Lagun Artean dantza taldeko kidea

"Mutilen taldea sortu genuen iaz, eta sasoi onean jarraitzen dugu"

X.G. | ARAMAIO

Zapaturako, Lagun Artean dantza taldekoek 60. urteurrena ospatzeko jaialdia antolatu dute. Zifra esanguratsu hori ospatzeko eguna izango da eta hainbat ekintzaz osatutako egitaraua prestatu dute. Kalejira, dantza erakustaldia, herri bazkaria, erromeria eta tartean omenal diren bat edo beste. Urteurrenaren eta taldearen egoeraren gainean galdetu diogu Ainara Inuntziaga taldekideari.

Nola joan dira ekitaldi nagusiaren aurreko ekintzak?

Oso ondo. Asteartean euskal jantzien buruzko hitzaldia egin genuen Ane Albisurenkin eta 25 lagun inguru batu ginen bertan. Eta argazki erakusketa jarri genuen Kultur Etxean. 50 urte egin genituenean argazki erakusketa egin genuen eta horri azken hamar urteetan egindako argazkiak gehitu dizkiogu. **Zein izan da 60 urte hauetan herriari egin diozuen ekarpena?** Jaietako kolorea izatea. Azkenean, urtero lau zapabost saio egiten ditugu Ibarren, eta beste batzuk gehiago herriko auzoetan; jendeak eskertu egiten ditu. **Zein da gaur egun taldearen sasoi puntua?**

Ba, egia esan, nahiko ona da. Azkenaldian neskak izan gara nagusi, eta mutil gutxi izan ditugu. Horiek talde mistoan sartzen genituen, baina iaz, zortzi mutil gaztez osatutako taldea osatzea lortu genuen. Sortu eta hilabete eskasera,



Ainara Inuntziaga. | AINARA INUNTZIAGA

Alaiak elkartearen egunerako dantza bat prestatu genuen, eta arrakastatsua izan zen. Emaldian bertan mutil gehiago etorri zitzaizkigun taldean sartu gura zutela esanaz; beraz, gu oso pozik. Helduen eta gazteen taldera jende berria animatu da; hori garrantzitsua da gurea bezalako elkarte batentzat. **Etorkizunera begira zeintzuk dira daukazuen helburuak?**

Ba, horrela mantentzea, esango nuke. Jende berria sartzen jarraitzea nahiko genuke, taldearen etorkizuna bermatzeko eta kaleak alaitzen jarraitzeko. **60 urte hauetan asko eman duzue, baina jaso ere bai, ezta?**

Hala da, jende askoaren laguntza jaso dugu ibilbide honetan, eta esker ona adierazi nahi diegu. Aipamen berezia egin nahi diegu herriko txistulariei. Euren ekarpenik gabe, dantza taldea ez litzateke ezer izango, lan handia egin dute gurekin batera.

Oilgor ehiza elkarteak Aramaioko ehiza barrutia kudeatuko du

Aramaioko ehiza barrutiaren iraunaldia agortu egin da hamar urte bete ondoren. Hori dela eta, Arabako Foru Aldundiaren arauari jarraiki, berriz esleitu behar izan du Aramaioko Udalak. Prozesu luzea izan da. Arabako Foru Aldundiari udal lurak ehiza esparruan sartzeko baimena eskatu zitzaion, eta, behin lurak eta baldintzak definituta, kudeaketa egiteko hautagaiak aurkezteko epea zabaldu zen.

Oilgor elkarteak izan da aurkeztu den hautagai bakarra. BEZa kanpo, urteko 4.900 euroko kontratua adostu dute beste hamar urterako.

Terrazak arautzeko ordenantzaren zirriborroa ikusgai

Aramaioko Udal Gobernuak amaitu berri du tabernetako terrazak erregulatzeko ordenantza berriaren zirriborroa, eta ikusgai jarri Udalaren webgunean.

Orain, herritarren eta, batez ere, tabernariaren ekarpenak jasotzea lortu nahi dute udal ordezkariak, denen artean ahalik eta ordenantzarik aproposena diseinatze aldera. Ekarpenak egin nahi dutenek urriaren 21a baino lehen egin beharko dute. Fase honetako ekarpenak jaso ondoren, ordenantza udazkena amaitu baino lehen indarrean egotea da Udalaren aurreikuspena.



ARAMAIOKO UDALA

Kaleko margo txapelketako irabazleak

Irudian, aurtengo kaleko margo txapelketako irabazleak. Helduen kategorian Carlos Espiga izan zen garaile, Jose Reyes bigarren eta hirugarren postua Esteban Orozentzat izan zen. Eta aramaioar onenaren saria Maite Mateok irabazi zuen.

NIRE USTEZ

MANEX
ARRIOLABENGOA
ETA SABIN
ARANBURU



Maritxuren ardoa

Zein polita den Maritxu Kajoi; zein gozoa den Maritxuren ardo gorria; zein kolore gorriak dituen bizitzak; ez dago ezer hoberik udazkena gorritz ureztatzea baino, maitatzean, poza adieraztean eta batez ere aske sentitzen garenean; orduan bai ze polita den ardoaren kolorea. Argi dago, Maritxu Kajoi gorria dela, edo ala bizi da behintzat. Kristautasunak duen artalde izaera guztiz islatzen da urriko lehenengo ostiralean, Arrasateko kaleetan. Inoiz pentsatu dugu zerk bultzatzen gaituen masifikatutako jai eredu haue-tara, artalde izatera?

Maritxu "gorri" honen gaur egungo zergatia, bizi ditugun formatatik eratorria da, guztiok ditugun egunerokotasuneko jokabideak bezala, denak du azalpena. Kasu honetan, dominazioaren sisteman bizi gara eta gehiengoa, nola ez, dominatuak gara. Dominatuaren kultura, ezinegonarena da, pertsonalki garatu ezin dugun bizitzena hain zuzen. Beraz, salbazioan sinisterra jauzten gara mendez mende. Gaur, dominatuon salbazio egitura santua juergan oinarritzen da. Errealitatea saihestea, alkohol edo bestelako bidez, gure denbora librearen zentro bilakatu dira, kontsumismoaren barruan.

Berdin da Maritxu Kajoi, hiriburuetako aste nagusiak, edota Aramaioko jaiak. Gora artalde izaera! Gora gure gabeziak aztertu eta eraldatzearren kontrako jarrera, hau da, begiak ardo gorritan sartu eta guztiaz ahazteko nahia!

Sentsibilizazio ekintza bereziak helburu azaroaren 25erako

Herritarren parte hartzea eskatu dute eguaztenean egitekoa den batzarrean

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Udal ongizate sailetik herritarrekin batera prestatu gura dituzte azaroaren 25eko sentsibilizazio eta aldarrikapen ekintzak. Aurten ere biolentzia matxista salatze elkarretaratze batera deituko dituzte elgetarrak, baina horrekin batera bestelako kale ekintzak egin gura dituzte. Horiek prestatzen hasteko, lehenengo bilera irekia egin zuten irailaren 15ean, eta hainbat ideia sortu ziren. Esaterako, 2016ko urtarritetik azarora bitartean Euskal Herrian eraila izan den emakume bakoitzeko silueta bat egitea, eta silueta guztiak herriko plazan ipintzea kandela eta krabelin banarekin. Horrekin batera informazio panel bat prestatu gura dute non biolentzia matxistaren askotariko adierazleak jasoko dituzten.

Egindako beste proposamen bat izan da iluntzeko elkarretaratzerako pankarta berezi bat prestatzea, eta hamabost minutuko elkarretaratze isila egin ostean habanera edo olerki batekin amaitzea bilkura. Gaztetxetik



lazko ekintzarako herritarrek emandako zapatak gorriz margotzen. | GAZTETXEA

ere ekintza berezi bat prestatzeko asmoa agertu dute. Poesia eta musika uztartzen dituen emandako berezi bat izan daiteke.

Ekimenaren bultzatzaileek hainbat ideia dituzte mahai gainean, eta hurrengo bileretan joango dira horiek guztiak lantzen eta gauzatzen. Jakinarazi dute eguaztenean, hilak 19, egingo dutela hurrengo batzar irekia "dena lotuta edukitzeko edo beste ideia batzuk lantzeko". Herri-

tar guztiak daude bertan parte hartzera gonbidatuta. Batzarra 18:00etan egingo dute udaletxean.

Gizarte langile berria

Astelehena ezkerro gizarte langile berria du Elgetako Udalak. Iratxe Alonsok beteko ditu Bideberri mankomunitateko gizarte langilearen zereginak. Aldi baterako baja bat dela eta Naiara Unamuno ordezkatzeko du Alonsok.

Hutsik geratu da antzokiaren kudeaketarako lehiaketa publikoa

L.Z. | ELGETA

Espaloia kafe antzokiaren kudeaketa esleitzeko lehiaketa publikoa hutsik uztea erabaki du Elgetako Udalak. Iratitz Lazkano alkateak jakinarazi duenez, eskaintza bakarra aurkeztu da lehiaketara, baina ez zituen eskatutako baldintza orokorrak betetzen. "Proposamena gutxienezko baldintza horietara egokitze eskatu diogu interesatuari, eta horrekin batera eskaeran antzeman ditugun zenbait akats administratibo zuzentzeko, baina ez dugu erantzunik jaso eta erabaki dugu lehiaketa publikoa hutsik uztea".

Elgetako udalbatzak uztailko osoko bilkuran onartu zituen antzokiaren kudeaketarako lehiaketa publikorako baldintza orokorrak, eta irailaren 12an amaitu zen proposamenak aurkezteko epea. Lehiaketa horren bitartez ostalaritza zerbitzua eta museoa esleitu gura zituen Udalak, kultura arloa zelan kudeatu kultura batzordetik lantzeko asmoarekin. Lehiaketa publikoa hutsik gelditu ostean, Udaletik jakinarazi dute etorkizunera begira negoziazio prozedura berri bat jarriko dutela martxan. Egokiera aztertzen ari dira.

Bederatzi bikotek eman dute izena herri mailako lau t'erdiko pilota txapelketan jokatzeko

Laster emango diote hasiera urteroko binakako pilota txapelketari. Aurten, bederatzi bikotek eman dute izena. Azken orduko aldaketarik ez bada, lau bikotek jokatu dute 40 urtetik azpiko txapelketa, eta bost bikotek 40 urtetik gorakoena. Lerrook idazterakoan egin barik zeuden oraindik azken kategorian horretako bikoteak. Egutegia adostu bezain laster hasiko dira norgegiagokak. Finala, urtero moduan, Urtezahar egunean jokatu dute txapelketa bakoitzeko bi bikote onenek.



ELGETAKO UDALA

Hamabost lagun auzolanean

Eguaztenean, urriak 12, hamabost lagun elkartu ziren Egoarbitzako udal sailak auzolanean garbitzeko. Bigarren urtez egin du deialdia Elgetako Udalak Hispanitatearen Egunaekin, eta dozenatik gora lagun elkartu dira bietan. Boluntario taldea 08:30ean abiatu zen herriko plazatik, eta goiza eman zuten baso garbiketa lanetan.

Hiru mintzapraktika taldek ekingo diote ikasturte berriari, Elgetan

Kepa de Vega koordinatzaileak jakinarazi du hamazazpi partaide dituela oraingoz egitasmoak, eta zabalik jarraitzen duela izena emateko epeak

L.Z. | ELGETA

Elgeta Berbetan mintzapraktika egitasmoak bigarren ikasturtea hasi berri du. Oraingoz hamazazpi lagunek eman dute izena, eta hiru taldetan banatuta astean ordu bate eskainiko diote egitasmoari. Helburua da euskaraz naturaltasunez moldatzen diren herritarren mintzamena hobetu nahi dutenekin elkartzea gustuko dituzten ekintzen bueltan euskaraz berba egiteko.

Iaz jaio zen Elgeta Berbetan ekimena, eta lehen ikasturtean hemezortzi lagunek eman zuten

izena. Ekitaldi berriari dagokionez martitzenean egin zuten lehenengo saioa Gurasolagun taldeko kideek. Beste bi taldeak hurrengo astetik aurrera hasiko dira elkartzen.

Izen-ematea zabalik

Taldeak hasita daude martxan, baina egitasmoa koordinatzaile Kepa de Vegak gogorarazi du urte osoan zehar dagoela zabalik izena emateko epea. "Egitasmo honetan parte hartzera gonbidatzen ditugu ikasle, irakasle, guraso, aiton-amonak, langile eta, oro har,

bere buruari erronka txiki bat jarri nahi dion herritar oro, denon artean posible baita hizkuntza komunitatea indartzea eta egonkortzea", esan zuen astelehenean Arrasaten egindako kanpainako aurkezpen orokorrean. Debagoieneko sei herritan dago martxan egitasmoa: Arrasaten, Oñatin, Aretxabaletan, Bergaran, Eskoriatzan eta Elgetan.

Elgetan, interesatuek udaletxean, berbetan@elgeta.net helbide elektronikoa edo 665 282 215 telefono zenbakian eska dezakete informazio gehiago.

LEINTZ GATZAGA

Mendi irteera familian egiteko aukera, domekan

10:00etan Gatz Museoan hasiko dute ibilbidea eta Hiruerreketatik igarota herrira itzuliko dira

ENEKO AZURMENDI | LEINTZ GATZAGA

Eskoriatzako Hezkuntza Foroak antolatuta –Luis Ezeiza eta Arizmendi-Almen ikastetxeek osatutako foroa–, familiei bideratuta

ko mendi irteera egingo dute etxi, domekan, Leintz Gatzagan. Ibilaldia Gatz Museoan hasiko dute, 10:00etan. Bertatik Hiruerreketara joango dira eta ondoren

Gatzagara itzuliko dira. Hiru ordu inguruko bidea izango dela aurreikusten da. Orotariko publikoarentako izango da eta ez da aurrez izena eman behar ibilaldian parte hartzeko. Foro honek antolatzen duen lehenengo mendi-irteera izango da domekakoa.

Gripearen aurkako txertoa

Bestalde, Osakidetzak aditza eman duenez, astelehenean abiatuko da gripearen aurkako txertoaren kanpaina eta abenduaren

17ra arte egongo da indarrean. Gatzagarrek Eskoriatzako Osasun Zentrora joan beharko dute txertoa jasotzera, bertako ordutegia- ren barruan. Arratsaldean itxita badago ere, gatzagarrek deitu ahal izango dute txanda eskatzeko. Bestalde, informazioa eskuratzeko ere, Osasun Zentrora deitu ahal izango dute.

65 urtetik gorako guztiek

Debagoieneko ESiko Osabidetik gomendatu dutenez, txertoa har-

tu beharko lukete 65 urtetik gorako guztiek, eta baita gaixotasun kronikoren bat duten 65 urtetik beherakoek ere: diabetesa, edo bihotzeko, biriketako, giltzurrunetako zein bestelako gaixotasunen bat dutenentzat. Haurdun dauden emakumeek ere hartu beharko dute.

Horrez gain, etxean dauden ezindak euren medikuarekin edo erizainarekin harremanetan jarri ahal izango dira, txertoa etxean hartzeko.

UDAKO ARGAZKIEN XII. GOIENA LEHIAKETA

Argazki guztiak fotoblog honetan: blogak.goiena.eus/argazkiak

HAUEK DIRA IRABAZLEAK!



ILUNABARRA. *Alaine Roa.* Gili Trawagan uhartea.
SARIA: Orioko Aisia hotelean, zirkuitu termala eta bazkaria edo afaria, Arrasate Bidaia-en eskutik.



LASAI. *Angel Aiaitui (Aretxabaleta).* Jone eta Ane Eiffel dorreari begira.
SARIA: Kindle-a Arrasateko Eroski Hipermerkatuaren eskutik.



OPORRETAKO AZKEN JOLASAK. *Zigor Kintana (Leintz Gatzaga).* Donostian ateratako argazkia abuztuaren azkeneko astean.
SARIA: Bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

HERRITARREN SARIA



MIKEL PARADISUARI BEGIRA. *Mirian Campo.* Koh Samui.
SARIA: Munduko kafe ezberdinen otarra. Arrasate Karibu dendaren eskutik.

EHUNDIK GORA LEHIAKIDE Aurtengo edizioan lagun askok hartu dute parte. Argazki ugari jaso ditugu. Batzuk freskoak direlako, beste batzuek barrea eragiten dutelako; teknika aldetik zainduta

daudenak jasoditugu, eta baita erretratua ateratzean ederto zebiltzala erakusten dutenak ere. Argazki horiek guztiek dute gurean lekua; horrenbestez, datorren urtean ere animatu!

GOIENA POZIK Hamabigarren edizioak erakutsi du debagoiendarren artean lehiaketa finkatu dela. Alde horretatik, oso pozik dago Goiena, parte-hartzea handia izan delako. Eskerrik asko denei.

Urriaren 21eko egubakoitzeko **GOIENA** paperean izango duzue irabazleak ezagutzeko aukera.

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

GURE AMETSA
JATETXEA

ARRASATE BIDAIAK

EROSKI
ARRASATE

karibu
munduko zapoak
karibumundukosaporeak.com

ESKUBALOIA



Izarraitz Aloña Mendiko jokalaria bat jaurtiketa egiteko gertu, iaz, Deustoren kontrako partiduan. | GOIENA

"Bi taldeon indarra defentsan dago; intentsitate handiko lehia izango da"

Izarraitz-Muñoz Aloña Mendik eta Ford Mugarri Arrasatek derbia jokatu dute bihar Zubikoan; bi taldeetako inork ez du liga iaz bezain ondo hasi

XABIER URZELAI | OÑATI
Ligako laugarren jardunaldiak ekarriko du denboraldiko lehenengo derbia (zapatua, 18:00, Zubikoa). Eta, bi taldeak sailkapenaren erdi inguruan daude, hiru partiduetatik bat galdu eta gero. Oñatiarrek liga hasiera ona zeramaten –bi garaipen–, aste barruan Deustoren kontra 32-36 galdu duten arte; ikusteko dago taldea pare bat egunetan zelan errekuperatzen den.

Hala, taldeko bigarren entrenatzaile Rafa Zuluetak aitortu du iaz baino presio handiagoa daukatela: "Eta lehenengo partiduan igarri genuen hori batez ere. Iaz iritsi berriak ginen eta sorpresa izan zen hasieratik aurrean ibiltzea. Aurten, berriz,

aurre-denboraldian gogor egin dugu lan, liga indartsu hasteko. Gainera, bi talde ditugu senior mailan, eta horrek entrenamendu saio onak egiteko aukera ematen du. Horri esker, hasierako bi partiduetako sentsazioa ona izan da". Eta, gaineratu du gogotsu daudela derbira begira: "Iaz onenak baino koska bat beherago egon ginen, Arrasateren eta Basauriren kontrako partidua ezin izan genituen irabazi, eta aurten hor egon gura dugu".

Hasiera makalagoa
Ford Mugarri Arrasateri, berriz, joan den domekan Muskizi ondo irabazi izanak (37-24) mesede egin dio, Pulporen kantuan berdindu eta Basaurin galdu eta gero liga

ez dute-eta iazko nagusitasunarekin hasi: "Baina emaitza horiek ez dute askorik erakusten. Pulporen kontrako berdinketa azken segundotan egindako akats baten ondoren etorri zen, eta Basauriren kantuan galtzea ez da batere arraroa, iaz ere ez genien irabazi, kanta oso gaitza delako", dio Andoni Arando Ford Mugarriko ordezkariak: "Eta kontrara, Muskizen kontrako garaipen errazak ere ez du apartekorik erakusten, taldeko hiru jokalaria onenak falta zituztelako". Horrenbestez, Arandoren ustez, oraingo sailkapenak ez du askorik erakusten: "Lasai, hau hasi baino ez da egin".

Derbirako, biak gogotsu
Biharko derbirako gogoz daude bi taldeetako ordezkariak: "Bi taldeak defentsan oinarritzen gara. Arrasatekoek ez dute gure abiadura, baina beste urte batzuetako esperientzia daukate eta partidu zaila izango da", dio Zuluetak. Eta Arando bat dator, defentsan intentsitate handiko partidua izango da: "Ikusteko dago atezainen ekarpena zelakoa izango den, eta bestalde, Bernali ezin dizkiogu jaurtiketak erraztu, trabak jarri beharko dizkiogu".

ESANAK

"Iaz Arrasate eta Basauri baino koska bat beherago egon ginen, aurten hor egon gura dugu"

RAFA ZULUETA | IZARRAITZ MUÑOZ ALOÑA

ESANAK

"Oñatin galtzea probabilitateen barruan sar daiteke, baina hau hasi baino ez da egin"

ANDONI ARANDO | FORD MUGARRI ARRASATE

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Mondra-Hernani
Zapatua, 16:30. Mojategi.
Aretxabaleta-Martutene
Domeka, 16:30. Ibarra.
Oñartzun-Aloña Mendi
Zapatua, 16:15. Oñartzun.

ERREGIONAL PREFERENTEA

Intxurre-Mondra
Zapatua, 16:00. Alegia.
Idiazabal-Aretxabaleta
Zapatua, 17:00. Idiazabal.
Tolosa-Bergara
Zapatua, 15:30. Usabal.

LEHEN ERREGIONALA

Arizmendi-Aloña Mendi
Zapatua, 17:30. Ibarra.
Bergara-Urki
Domeka, 17:30. Ipintza.
Eibartarrak-Antzuola
Zapatua, 15:30. Unbe.

OHOREZKO GAZTEAK

Bergara-Ordizia
Zapatua, 16:30. Ipintza.
Mondra-Amakak Bat
Zapatua, 18:30. Mojategi.
Aloña Mendi-Anaitasuna
Domeka, 16:30. Azkoagain.

Aretxabaleta-Zestoa
Domeka, 12:00. Ibarra.

EMAKUMEZKOAK

Orioko-Mondra
Zapatua, 18:00. Mendibelz.
Ilintxa-Arizmendi
Zapatua, 15:30. Legazpi.
Bergara-Eibar
Domeka, 15:30. Ipintza.

ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA

Aretxabaleta-UDA-Mallabia
Domekan, 12:00. Ibarra.
Corazonistas-Eskoriatza
Domeka, 18:30. Gasteiz.

GIPIZKOAKO LIGA

Ventanas ISU-Mondrate
Egubakoitza, 20:55. Lasarte.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA, GIZONEKZKOAK

Izarraitz Muñoz-Ford Mugarri
Zapatua, 18:00. Zumaia.

EUSK. EMAKUMEZKOAK

Iturritxo Aloña-Bera Bera
Zehaztu barik.

GIPIZKOAKO TXAPELKETA

Lau Bide-jatetxea-Soraluce BKE
Zapatua, 19:15. Legazpi.

GIPIZK. BIGARREN MAILA

Gure Auzune-Muñoz Izarraitz
Zapatua, 18:00. Gasteiz.
Arrasate-Muntzarpe
Domeka, 12:00. Iturripe.

SASKIBALOIA

EBA MAILA

MU-Take Tolosa
Zapatua, 18:30. Iturripe.

EUSKADIKO BIG. MAILA

Natra Oñati-Goierri Verkol
Zapatua, 18:00. Zubikoa.

GIPIZKOAKO TXAPELKETA

Zast Zarautz-Soraluce Bergara
Zapatua, 18:00. Zarautz.

EMAKUMEZKO SENIORRAK

Eskoriatza-Antigua Luberri
Gaur, 20:15. Eskoriatza.

MENDI BIZIKLETA

IBAN ALTUBEREN OMENEZKO MARTXA
Domeka, 09:00. Oñati.
Gazteendako irteera 10:30ean hasiko dute.

ESKUBALOIA

"Inoiz ez moduan sufrituta" iritsi zen Aritz Kortabarria helmugara

X.U. | BERGARA

Aritz Kortabarriak Hawaiiko ironmana amaitzea lortu zuen zapatuan (10.32.18). Ez zen izan amestutako lasterketa, ondoren sare sozialetan aitortu zuen moduan.

"Kalamitate baten moduan"

Bergarakoak zintzo kontatu ditu Hawaiin pasatakoak: "Igeriketa-ko tartea txukun egin nuen; bizikletan dena ematen hasi nintzen, topera, 110. kilometrorara arte. Amestutako postuetara iristen ari nintzen, baina orduan epaileek *blocking* batekin zigortu ninduten –bost minutuko zigorra, kontrario bat aurreratzeko 15 segundo baino gehiago erabil-tzearren–. Hor erabat galdu nuen

kontzentrazioa. Txukun hasi nuen korrikako tartea, 7. kilometrorara arte. Mangera batekin ura bota zidaten, oinak busti, eta babak irten zitzaizkidan segituan. Korrika egiteko postura aldatzearen ondorioz giharretako arazoekin hasi nintzen, eta botaka ere egin nuen, tripetako arazoak izan ostean. Halaxe iritsi nintzen helmugara, kalamitate baten moduan. Inoiz ez moduan sufritu dut Hawaiin".

Hala, Bergarakoak garbi dauka aurrera egiteko indarra nondik atera zuen: "Zentzudunena erretiratzea izango zen, baina metara iristeko indarra Euskal Herritik iritsi zitzaidan; lagundu didatenekin zorretan nengoen".

PELOTA

Beñat Rezustak kontratua luzatu du Asperekin, 2020ra arte

"Pozik nago enpresa eta biok adostasunera iritsi garela. Kontratua luzatu izanak lasaitasuna ematen dit, enpresak nigan sinesten duela erakusten duelako. Eta garrantzitsua da, edozein momentutan lesio baten ondorioz egoera erabat alda daitekeelako", adierazi du Bergarako atzelariak. Hala, Rezustak, oraingoz, 2020ra arte jarraituko du Aspe enpresan, eta urteko txapelketa nagusietan egoten jarraitu gura du. Poliki-poliki enpresako atzelari garrantzitsuenen taldean sartu da.

FUTBOLA

Mondrak eta lider dagoen UDAk etxean jokatu dute asteburuan

Ohorezko erregiona mailan bost jardunaldi behar izan ditu UDAk sailkapeneko lehenengo postura salto egiteko –bost garaipen–. Hala, asteburuan Martuteneren bisita izango dute. Bosgarren dagoen Mondrak ere etxean jokatu du, puntu bakarrera dagoen Hernaniren kontra. Aloña Mendi, berriz, Oñartzunen aha-leginduko da denboraldiko lehen garaipena bilatzen. Eta erregional preferentean, Bergarak Tolosan jokatu du.

SASKIBALOIA

MUK Tolosaren bisita izango du bihar, etxeko lehenengo lehian

Joan den astean ligako oilarrretako baten kantuan ekin zion Mondragon Unibertsitateak liga txapelketari. Ez zen sorpresarik egon, eta Easokoek erakutsi zuten aurten ere aurrean ibiliko direla. MUK txukun egin zion aurre kontrarioari, laugarren laurdenean fisikoki behera egin zuten arte (81-66). Zapatuan, berriz, Larreategiren mutilek Tolosaren bisita izango dute etxean jokatu dute ligako lehen norgehiagokan (18:30).

TXIRRINDULARITZA

Iban Altuberen omenezko 5. martxa egingo dute domekan

Domekan (09:00, Oñati) egingo dute Iban Altube gogoan izateko martxa. Goizeko lehenengo orduan omenaldi ekitaldia egin, eta segidan hasiko dute nagusien martxa. Ibilbide luzeak 36 kilometro izango ditu, eta motzak 24 kilometro (10 euro federatuek, 15 ez federatuek). 10:30ean, oster, 6-12 urte bitarteko gaztetxoendako bizikleta irteera egingo dute (5 kilometro) Markel Irizarren laguntzarekin. Ordubete ingurukoa izango da.

MENDIA

Hiru Handiak proban parte hartuko dute 90 debagoiendarrek

Gaur, egubakoitza, gauerdian hasiko dute Hiru Haundiak mendi lasterketako 20. edizioa, eta oraingoz 103 debagoiendar batuko dira irteera puntuan [Arrasatek 25, Bergatik 11, Oñatitik 24, Eskoriatatik 10, Aretxabaletatik 11, Elgetatik 3, Aramaiotik 1 eta Antzuolatik 1]. Ondategi-Gopegin hasiko dute proba, eta Gorbeia, Anboto eta Aizkorri gaingitu beharko dituzte Araian egongo den helmugara iritsi aurretik.

Musika, hitzak eta dantzak

Xabier Lete aitzakia hartuta

'Arthitz 2' jardunaldia egingo dute bihar, zapatua, Gandiaga Topagunean Ekitaldi guztiak doan izango dira, baina edukiera mugatua izango dute

A. ARANBURUZABALA | OÑATI

Arthitz 2, Hatsetik hortzera (Hats-Hauts-Hots-Huts) izeneko jardunaldia egingo dute bihar, zapatua, Arantzazuko Gandiaga Topagunean. Xabier Lete eta *Izarren hautsa* oroitzuz egun osoko egitaraua antolatu dute Koldobika Jauregi eskultoreak zuzentzen duen Ur Mara museoak, Mikel Laboa Katedrak eta Arantzazu Gaur Fundazioak.

"Iaz oso modu xumean egin genuen, baina, oso gustura geratu ginen. Aurtengoa, Xabier Lete aitzakia hartutakoa izango da. Iazko gaia abstraktuagoa, existentzialagoa zen. Hala ere, Xabier Leteren irudian zentratu dugu, baina, ekimenetarako gaia oso zabalik utzita", azaldu du Juan Kruz Igerabidek, Mikel Laboa Katedrako kideak.

Antzeko gauzen egarriaz

Mikel Laboa Katedrak ikerkuntza egiteaz gainera, zenbait ekin-tza artistiko bultzatzen ditu, arte diziplina ezberdinak diren arte diziplinak uztartu nahirik. Era berean, Ur Mara elkarteak ere antzeko ekintzak egiten dituela-eta, Arantzazura eraman zuten elkarrekin proposamena. "Antzeko gauzen egarriak bultzatuta elkartu ginen hiru elkarteak. Hasiera baten, Koldobikak asmo zabal bat zuen, *Katedral* deitzen

ziona. Oteizaren ideia batetik abiatuta askotariko arte diziplinak uztartuz, Arantzazun interbentzio bat egin gura zuen. Asmo handi hura aurrera eramateko, baina, aurrekontua oso handia behar zen, eta erabaki genuen proiektua etxekotu eta mugatzea".

Aurtengoa ere, askotariko arte diziplinako sortzaileak batuko dituzte, baina, baita Xabier Lete musikariaren inguruko azterketa egiten ari diren ikertzaileak ere. "Mikel Laboari buruzkoa izan zen Katedrak egin zuen lehenengo ikerketa-lana eta orain, Leteri buruzkoa ari gara egiten. Asmoa, poliki-poliki, Ez dok hamahiruko kideen ikerketa egitea da. Leteren ikerketaren ordu-beteko laburpena egingo digute, bada, Otaegik eta Gurrutxagak".

Izen handiko sortzaileak

Antolaketa aldetik artisautza lan handia eginda, izen handiko sortzaileak ekarriko dituzte Arantzazura. "Iazkoan ere elkarrekin egon ziren Antton Valverde eta Anjel Lertxundik, oraingoa, gertuko laguna zuten Leteri buruzko hurbilketa artistiko, musikal eta poetikoa eskainiko dute. Joxan Goikoetxea musikariak eta Karlos Linazasorok, Xabier Leteren Lehen Saria irabazi zuen poetak, ere Lete oinarri hartutako poesia musikatu saioa egingo dute.

Egitaraua borobiltzeko, Koldobika Jauregik eskultura bat egingo du musikariek eta abeslariak lagunduta; horien artean dago Marije Ugalde, Bergarako Musika Eskolako zuzendaria: "Donostiako Akordeoi Orkestran ezagutu genuen elkar Susana eta biok. Hilario Rodeiro, berriz, jazz estiloko eskarmentu handiko bateria-jolea da. Ikuskizunean sei zatitan banatutako bideoa erakutsiko dugu, eta zati bakoitzean musika egongo da. Batzuetan, akordeoia bakarrik, beste batzuetan, perkusioa, abesbatza...", dio Marije Ugaldek.

'ARTHITZ' 2 EGITARAUA

URRIAK 15

11:00 *Izarren hauts-hondarrak*: Xabier Lete ikertuz hitzaldia Lourdes Otaegiren eta Alex Gurrutxagaren eskutik.

12:30 *Izarren hautsa haizatuz* mintzaldi musikatua egingo dute Antton Valverdek eta Anjel Lertxundik.

17:00 *Ahaire delizius huntan* musika eta dantza ikuskizuna Bedatse Liliak taldearen eskutik.

18:30 *Poeta naizenez gero* poesia eta musika saioa Karlos Linazasoro poetaren eta Joxan Goikoetxea musikariaren eskutik.

20:00 *Uholde handia: arkaren istorio bat* musika eta performance saioa. Parte hartuko dute: Susana Cencillok, Hilario Rodeirok, Marije Ugaldek, Bergarako Musika Eskolako Haurren Abesbatzak eta Koldobika Jauregik.



Deabru Beltzak taldeak zabalduko du aurtengo Mostra. | TAUN TAUN TEATROA

Helduentzako Nazioarteko Txotxongilo Mostra badator

Urriaren 20tik 23ra bitartean, ikuskizunak, tailerra eta film labur emanaldia izango dira

A. A. | BERGARA

Taun Taun Teatroak bi urtean behin antolatzen duen Helduentzako Nazioarteko Txotxongiloen Mostra egingo dute datorren egunean hasita.

Euskal Herrian eta Estatuan zegoen hutsunea betetzeko asmoarekin abiatu zuen Bergaran jaiotako taldeak 1991. urtean Mostra. Txikia eta familiarra bada ere, dagoeneko nazioarte mailako 140 artista eta konpainia baino gehiago ekarri ditu Bergarara.

Zazpi saio, hainbat aretotan

Ezaugarri eta jatorri askotarikoa konpainiak batuko dituzte; hori horrela, besteak beste, Argentinatik, Frantziatik eta Gaztela eta Leondik etorriko dira. Aurrekoetan moduan,

herriko hainbat txoko areto bihurtuko dituzte: Zabalotegi eta Aroztegi aretoez gainera, San Martin plazan eta gaztetxean ere izango dira.

Emanaldi guztiak dohainik dira, baina edukiera mugatua izango dute.

Stop-Motion tailerra

Berrikuntzak ere izango dira; horien artean urriaren 22an, zapatua, 10:00etatik 14:00ra egingo duten animaziozko film laburren tailerra. Hutsetik ikasteko pentsatuta dago, eta argazkien bitartez, bizigabeko objektuei bizitza ematen ikasteko asmoa du. Parte hartzaileek euren telefonoa edo tableta erabiliko dute. Izena emateko 943 77 91 59 zenbakira deitu edo idatzi kultura@bergara.eus helbidera.

Asier Altuna 'Amama' filma aurkezten ari da AEBetako hainbat euskal etxetan egunotan

A. A. | BERGARA

San Frantziskoko euskal etxean errodatu zuen 2011. urtean *Bertsolari* dokumentala; eta Philippe Acheritogarayk, hango presidenteak, gonbidatuta dago berriz ere Altunaren lantaldea AEBetan. "Acheritogarayk antolatu digu bira. Aurreko astean, Boisen (Idaho), San Frantziskon eta Chino (Los Angeles) herrian izan ginen. Aste honetan Renon

(Nevada) erakutsi dugu eta bihar New Yorken izango da azkeneko emanaldia. Gustura gaude, harrera oso ona egin digute", azaldu du Altunak.

Amama filmaren soka luzea da, baina bestelako proiektuetan ere ari da Altuna; horien artean, gaur zinema areto komertzialetan estreinatuko duten *Kalebegiak* film kolektiboan. (Ikus gaurko Puntua aldizkaria).



Koldobika Jauregi iazko Arthitz-en. | JUAN BIAIN

ARRASATEKO BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUA

Urriak 15 | 2016 | Azaroak 19

Antolatzailea: **ARRASATEKO UDALA**
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
■ Enplegu eta Garapen Ekonomikoen Saria

Laguntzailea: **ibal-arte**
Arrasateko baserriek eta merkatariak konfiantza, hurbiltasuna eta kalitatea eskaintzen dizkizute.



1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Santa Marina kalean 55 metro koadroko etxebizitza salgai. Hirugarren solairuan. Gela guztiak kalera begira. Egongela, sukaldea, komuna eta bi logelakoa. Sotoa ere badu. Harremnatarako: 605 70 98 60 edo santamaina10@gmail.com

Bergara. Etxebizitza salgai Fraiskozurin. Hiru logela, egongela, sukaldea eta nagusiendako egokitutako komuna. Igogailuarekin eta berokuntzarekin. Dena kanpora begira. Argitsua. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 687 57 84 23

103. ERRENTAN EMAN

Aramaio. Etxebizitza ematen da errentan. Leku onean. Ikuspegi politik. Eguzkitsua. Hiru logela, egongela eta bi bainugela. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 665 72 28 46

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Uribe Auzoan. 105 metro koadro, 4 logela, 2 komun oso, balkoia, sukaldea etxetresna guzkiekin. Altzariak dauzka. Garajeiko plaza ere aukeran. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 657 72 51 65

Eskoriatza. Etxebizitza guztiz jantzia ematen da errentan Eduardo Gorosari enparantzan. Sukaldea, bi bainugela, egongela eta hir logela. Garajearekin. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 605 77 51 65

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Igogailua duen etxebizitza behar dugu errentan. Nagusiendako egokitura bada, hobeto. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 632 77 35 38

105. ETXEAK OSATU

Aretxabaleta. Logela ematen da errentan erdigunean, sukalde, egongela eta komuna erabiltzeko aukerarekin. Logelak sarraila dauka eta wifia ere badago. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 603 14 28 89

Arrasate. Unibertsitatetik gertu, San Andresen, etxebizitza osatzeko jende bila nabil. Hiru logela daude eta momentuz pertsona bakarra dago. 631 46 56 98

Oñati. Etxebizitza osatzeko etxekide bila. Orain gutxi eraberritutako etxebizitza da. Erdigunean dago. Logela zabala. 658 86 98 38 (Mikel)

2. GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Garaje itxia salgai Boni Laskurainen. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 687 57 84 23

203. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Garaje itxia Santa Kurtz 24an. Errentan 60 euro hilean edo salgai 15.000 euroan. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 647 08 00 16

204. ERRENTAN HARTU

Bergara. Garaje irekia errentan hartuko nuke Ibargarai kalearen inguruan. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 618 30 27 57

Oñati. Oñatin garajea hartuko nuke errentan. Olakua auzoaren inguruan. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 678 80 83 00

ZURE IRAGARKIAK

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguztzeneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu. Hortik aurrera, ez du onartuko aldaketarik edo iragarkia bertan behera uzterik. GOIENAK ez du iragarkien ondoko operazioen erantzukizunik.

3. LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

ARRASATE

Taberna ematen da errentan erdigunean. 671 42 54 32

4. LANA

401. ESKAINTZAK

INTERSPORT

LORAMENDI

Abendura arte lanaldi osoan pertsona euskalduna behar da. Bidali CV: info@loramendikirolak.com

OÑATI

Sukalde laguntzailea behar da, astean lau egunetarako. 610 99 78 35

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakume gertu emakume nagusiak paseoan laguntzeko edota ume bat zaintzeko. 695 58 88 63

Arrasate. Mutila gertu txakurrak kalera ateratzeko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 615 50 54 18

Arrasate. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke orduka. Goizetan zein arratsaldetan, astelehenetik ostiralera bitartean. Baita garbiketarako ere. 622 24 86 64

Arrasate. Neska arduratsua eta langilea gertu nagusiak zaindu, etxeko lanak eta garbiketarako ere. 663 87 83 89

Bergara, Arrasate, Antzuola. Eskarmentu handiko emakume euskalduna eskaintzen da etxeetan, tabernetan eta atarietan orduka garbiketarako burutzeko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 690 86 46 80

Bergara. Arratsaldetan umeak zaintzen lan egingo nuke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 648 00 25 66

Bergara. Haur Hezkuntzako graduua duen neska gazte bat naiz. Haurrak zaintzeko prest nago. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 695 75 11 97

Bergara. Kaixo! Irakasle ikasketak dituen neska euskalduna naiz eta haurrak zaintzeko prest nago. Goizez zein arratsalde. Esperientziaduna. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 659 29 14 63

Debagoiena. Prest nago garbiketarako, umeak zaintzeko, adinekoak zaintzeko eta abarretarako. 685 64 85 64

Debagoiena. 9:00etatik 16:00ak bitartean orduka lan egingo nuke, nagusi edo umeak zaintzen, garbiketarako, mandatuak egiten eta abar. 634 26 10 92

Debagoiena. Asteburuetan nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 659 90 85 13

Debagoiena. Asteburuetan nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Asteazkenetik arratsaldetan orduka ere bai. Deitu telefono honetara: 631 28 02 98

Debagoiena. Astelehenetik egubakoitzera, orduka, garbiketarako ematen da nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 631 72 71 72

Debagoiena. Astelehenetik egubakoitzera, orduka, garbiketarako ematen da nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 631 95 88 06

Debagoiena. Emakume gertu nagusiak eta umeak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 672 57 73 03

Debagoiena. Emakume gertu nagusiak zaintzeko edo tabernako sukaldean aritzeko. Etxean bertan bizi izaten, jardun osoz edo baita orduka ere. 697 20 00 86 edo 612 56 65 27

Debagoiena. Emakume gertu umeak eta nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 634 04 17 30

Debagoiena. Erizain laguntzaile ikasketak dituen neska nagusiak zaindu eta garbiketarako ere. Esperientzia dut. 620 23 58 15

Debagoiena. Esperientziadun neska lanerako gertu: nagusi edo umeak zaintzen, garbiketarako eta abar. Etxean bertan bizi izaten, orduka edota baita gauean ere. 681 37 60 13

Debagoiena. Esperientziadun neska lanerako gertu: nagusi edo umeak zaintzen, garbiketarako eta abar. Etxean bertan bizi izaten, orduka edota baita gauean ere. 696 30 19 10

Debagoiena. Esperientziadun sukaldaria eskaintzen da lanerako. 602 11 68 20

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Zaintza eta etxeko lanak egiten. 632 85 03 84

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edota orduka lan egingo nuke. Esperientzia eta erreferentzia onak. 631 14 27 02

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten, orduka edota asteburuetan lan egingo nuke. Sukaldean ondo moldatzen naiz eta legezko paperak ditut. Bedertzi urteko esperientzia dut. 677 20 82 30

Debagoiena. Garbiketarako ematen da nagusiak zaintzen lan egingo nuke, orduka. 662 02 45 80

Debagoiena. Geriatria titulua duen neska arratsaldetan lan egiteko gertu. Eskarmentuduna. Autoa daukat. 600 00 51 60

Debagoiena. Gizona eskaintzen da pertsonak zaindu edota laguntza emateko. 602 11 68 20

Debagoiena. Gizona gertu nagusiak zaindu eta etxeko garbiketarako. 634 14 36 65

Debagoiena. Gizona lan bila: denetarik garbiketarako, banatzaile eta abar. Autoa daukat. 632 77 35 38

Debagoiena. Gizona lanerako gertu: garbiketarako, peoi lanetan eta abar. 609 63 38 21

Debagoiena. Gizona nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egunez zein orduka. 631 40 81 98 (Junior)

Debagoiena. Goizetan nagusiak zaindu edota garbiketarako gertu nago. 655 15 36 59 (Alejandra)

Debagoiena. Lan egin nahi dut. Izan daiteke umeak edo nagusiak zaintzen, orduka, egun osoz edo baita etxean bertan bizi izaten ere. 648 46 60 28

Debagoiena. Mutil arduratsua, erabateko prestasunarekin, zerbitzari zein dendar lanetan aritzeko gertu. 605 52 88 43 edo 698 23 89 87

Debagoiena. Mutil arduratsua, esperientziaduna, lanerako gertu: orduka zaintza lanak egin, zerbitzari, dendar edota garraiolari. Autora daukat. 632 21 30 64

Debagoiena. Mutil euskalduna, jatorra eta indartsua, pertsona nagusiei laguntza emateko gertu. Autoa daukat, mandatuak egiteko edo laguntzeko. 679 74 00 61

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzen edo garbiketarako ematen da nagusiak zaintzen, orduka, egun osoz zein orduka. 638 85 43 36

Debagoiena. Mutila zaintza lanetarako gertu. Orduka, etxean bertan bizi izaten

edota baita asteburuetan ere. 602 63 68 14

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke gauean edo egunean zehar orduka. 672 98 20 91

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketarako edota etxeko lanak egiten aritzeko gertu nago. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edota orduka. 610 99 70 46

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketarako edota sukalde laguntzaile moduan lan egingo nuke. 691 03 25 02

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusiak eta umeak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. 639 02 51 20

Debagoiena. Neska arduratsua lan bila. Etxean bertan bizi izaten, egunez edo orduka. Etxeko lanak egiten eta ume zein nagusiak zaintzean esperientzia dut. 603 89 31 38

Debagoiena. Neska arduratsua, erabateko prestasunarekin, etxeko lanak egin, nagusiak zaindu eta zerbitzari zein dendar lanetan aritzeko gertu. 605 52 88 43 edo 698 23 89 87

Debagoiena. Neska euskalduna gertu nagusiak zaintzeko. 17 urteko esperientzia dut lan horretan. Astelehenetik ostiralera lan egingo nuke orduka. Autoa daukat. 607 72 75 61 (Bego)

Debagoiena. Neska gertu nagusiak eta umeak zaintzen, garbiketarako ematen da zerbitzari lanean aritzeko. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz zein orduka. 654 11 15 14

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaindu, garbiketarako egin eta abar. 609 63 38 21

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaindu, garbiketarako egin eta abarretarako. Legezko paperak ditut. 675 61 78 92

